



uk

205. zenbakia / 2011ko azaroaren 24a



**SALÓN DEL
CÓMIC Y MANGA
DE GETXO**

**GETXOKO
KOMIKI ETA MANGA
AZOKA**

25.26.27 AZAROA - NOVIEMBRE 2011

**AREETAKO GELTOKIA PLAZA
PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS
(GETXO) BIZKAIA**

**SARRERA
ENTRADA: 1.5€**

**CON LA ROJA
DE BBK + 1
GRATIS**

**ORDUTEGIA
HORARIO:**


11.00-14.30

17.00-21.00



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@dizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagarminaga
ERREDAKZIOA: Zuberioa Iturburu, Julen Nafarrate, Irantzu Sagarminaga
FOTOGRAFIA: Asier Menthaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamasas, David Crestelo Kres, Algortako Berto Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Laster Grafika S.L / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

 Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara zerbitzua	 Bermeo UDALA
 Leioa UDALA - AYUNTAMIENTO	 Ybilla UDALA
 Erandio UDALA	 Sopelana UDALA
 Urdulizko UDALA	 Plentziako UDALA
 BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia Departamento de Cultura	

Non zer

- 4. PLAZA.
- 5. IRUDIA. Basapiztiak Uribe Kostan.
- 6. FACEGUK. Zer egingo zenuke herrian euskara sustatzeko?
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Plentziako Erribera kalea.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Koldo Iturbe.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Martin Deuna jaiak Hezetasuna auzoan.
- 28. ARGAZKIA. Uriolak Romon.
- 30. BERBETAN. Carlos Aznarez.
- 34. FOTOGRAFIA. Sabino San Martin: Hezetasuna auzoa.
- 40. SAKONEAN. Berbalagunak Uribe Kostan.

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. 'Nemekitepa' filma.
- 43. MUSIKA. Miguel Moyano, Riff musika eskola.
- 44. LIBURUAK. Ipuin berotikoak.
- 45. KIROLAK. Naiara Gomez.
- 46. ELKARRIZKETA. Koska Irratiko lagunak.

AMAITZEKO

- 49. PINTXOTAN. Txibi arrautzaztatua tipula eta piperrakaz.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Itxas-Ganeren ibilaldi neurtua.
- 54. AITORMENAK. Iratxe Ibarra.

Azala: Sabino San Martin.

www.ukaldizkaria.biz



30 Carlos Aznarez

Berbetan

Latinoamerikako egoeraz zein Euskal Herrikoaz jardun dugu aita altsasua-rra zuen argentinarr-euskaldunagaz



11 Koldo Iturbe



54 Iratxe Ibarra

Clio Industrial 19 EURO egunero



Kango luzea 35 EURO egunero



Kango 25 EURO egunero



Leioa RENTACAR
ibilgailu-atohairua



Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02

David Crestelo Kres
> Plasentia Butroe museoko arduraduna

Mugak gaindituz...

Azken asteotan hainbat hedabidek zabaldu dutenaren arabera Plentziak eta Gorlizek kultur ekimenak eta bide garbiketa zerbitzuak bateratuko dituzte¹. Egia bada, eta alkateek hartu omen duten konpromisoa betetzen bada, ez da gutxi izango! Badirudi azkenean ere Busterrri zubiko mugak gaindituko ditugula...

Baina ez da lehenengo aldia udal bien artean saiakera hau egin denik, kasu gehienetan ezer lortu barik. Mendeetan zehar udalerri hauen aginteak behin eta berriro saiatu dira ez bakarrik zerbitzu batzuk bateratuak eratzen, baizik eta herriak anexionatzen ere, bien arteko lotura fisikoari erantzunez. Eta lotura honen lekukoak Plentziako Gaminiz kalea eta Gorlizko Gaminiz auzoa dira, honi txaleten auzoa esaten zitzaiona eta duela gutxi arte elizateko udaletxea zegoenean, Plentziako Kristo baselizatik gertu hain zuzen ere. Are gehiago, gaur egun hango biztanle plentziar batzuei dagokienez, euren komenentziari so, herentzia zelan banatu erabaki dezakete, lur lauko foru-zuzenbide edo hiribilduetako zuzenbide zibil arruntaren arabera².

1890. urteko prentsak esaten zuenaren arabera, herri bietako auzokideek Gorliz Plentziari anexionatua egoteko eskaera egin zuten³, baina bistan dago azkenean ez zutela lortu. Honek eragin negatiboa izan zuen, adibidez, komertzio batzuetan, herriek bate-tik bestera joateagatik muga-zergak eta oztopo administratiboak ezarri nahi zituztelako. Garraio enpresako Juan Jose Bideak Gorlizko udalari zaldi-orgak herria gurutzatzeko baimena eskatu zion, baina erakunde publikoak, erantzun moduan, isuna jartzearekin mehatxatu zuen⁴. Hiribilduko udala, noski, ez zen atzean gelditu eta gorliztarrei Iturgitxitik ura hartzea debekatu zien⁵.

UK-ren 192. alean komentatu genuen bezala, duela urtebete Euskaltzaindiaren



Onomastika batzordeak Butroe ibaiaren bokalean dagoen badiaren izena aztertu eta Plentziako Badi delat ebatzi zuen. Udalerrri bien aldarrikapena izan dena, bakoitzak bere gerra propioa eroan du: adibidez, 1989an Plentziako Udalak nabigazio-mapak elementu geografikoen izen ofizialekin banatu zituen komertzioen artean Gorlizko hondartzako euste-horman zegoen “Gorlizko Badi” esaten zuen pintada erraldoiari aurre egiteko asmoz. Kirol-munduan, arrauzale-

ek urte batzuetan badi horretatik atera gabe denboraldi berean bandera bien tituluak, Plentziakoa eta Gorlizkoa, gozatzeko aukera izan dute eta, zentzu berean, asko izan dira Herri Torrontegi motor gidariari egindako omenaldiak, bai Gorlizen bai Plentzian.

Gure nagusiei askotan entzun dizkiegun eta behin baino gehiagotan ikusi ditugun antzinako eztabaidak eta borrokak orain gure aginteen asmoek agian baretuko dituzte. Denon onerako izatea espero dugu.

BUSTO y MANDALUNIZ, Luis M. Desde Plencia 1891-1991. Plentzia: Partido Nacionalista Vasco, 1992; pp. 107-108 / 110 / EGIN, 19/09/1989: carta sobre la I bandera Bahía de Plentzia. ¹ http://gorliz.eaj-pnv.eu/blog-berriak/gorliz-plentzia-mancomunan-sus-servicios_27645.html ² http://www.deia.com/2010/12/08/bizkaia/la-diferencia-de-morirse-en-territorio-foral-o-en-las-villas-y-ciudades-de-bizkaia	³ BUSTO y MANDALUNIZ, Luis M. Desde Plencia 1891-1991. Plentzia: Partido Nacionalista Vasco, 1992; pp. 16-17 ⁴ BUSTO y MANDALUNIZ, Luis M. Desde Plencia 1891-1991. Plentzia: Partido Nacionalista Vasco, 1992; pp. 73-74 ⁵ BUSTO y MANDALUNIZ, Luis M. Desde Plencia 1891-1991. Plentzia: Partido Nacionalista Vasco, 1992; 84 p
--	--

gu geu

“Presaka, beti presaka...”

Oso musika zaleak gara UK-n, konturatuko zineten! Eta musika kontuetan murgilduta ibili gara, gure saltsan! Eta Gu Geu (gero eta laburrago honi, ez da alferrak garelako, ez; ziurrenik kolaboratzaileak gustura dabiltzalako baino) honi ere doinua ipini gura izan diogu: *bukatu da, bukatu da, bukatu da akabo!...* Ez goizegi da, hurrengoan... Agian, *Zorionak!* On Bittorri eskainiak...

UK-ko lantaldea



ASIER MENTXAKA

Basapiztiak Uribe Kostan/ Azaro hasieran Sopelan grabatutako bideo bat han-hemenka dabil sarean. Basurde-familia bat da bideoaren protagonista: Bilbo-Plentzia errepide nagusia lasai-lasai gurutzatzen agertzen dira, gasolindegia alboan, auto-gidariak ahoa bete hortz utziz. Ez da ohikoa basurdeak herriguneetan ikustea; normalean ez dira etxetik jaisten. Abentura nahia baino, janari edo gune basatien falta izan daiteke arrazoia. Horrelakoak ohikoak izango direlakoan, Barrikan seinalea jarri barri dute. Basurdeei, baina, gure presentziaz nork ohartaraziko die? ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Zer egingo zenuke herrian euskara sustatzeko?

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugu!



o Algorta

Elaine Moreno

> zerbitzaria

Euskaltegian ibili naiz euskara ikasten, eta uste dut hori dela biderik onena. Gauzak ondo egiten ari direla uste dut, eta jendea euskara ikasten animatu gura nuke. Era berean, propaganda eta kartelen bidez euskararen erabilera bultzatuko nuke.




o Algorta

Lander Urberuaga

> asmatzailea

Ez dut zehazki berbalagun egitas-moa ezagutzen, baina uste dut horrelako proiektuak bultzatu behar direla. Halan da be, berbalagunena gehiago zabalduko nuke, eta bilerak egin beharrean bestelako ekimenak antolatuko nituzke: urteerak, kontzertuak e.a.



o Algorta

Josu Zubiaur

> irakaslea

Jendeak berba egin dezala euskaraz. Baina egia esateko, alperrekoa da dana, euroari baino etorkizun gutxiago ikusten diot. Getxon bizkaiera ez da existiduten, eta gugaz akabo! Beharrean euskaraz egiten dut, baina kalean 'erdara batuan' egiten dugu, Algortan bizi garelako.



o Algorta

Gustavo Corman

> ostalaritza langilea

Komertzioetan euskararen erabilera bultzatuko nuke: ikastaroen bidez, kartelak jarri e.a. Dendetan ere euskaraz normaltasunez egiteko aukera izan dezagun. Bestalde, eskola eta ikastetxe publikoetan euskarari garrantzi handiagoa emango nioke.



o Getxo

Nerea Gijarrubia

> euskara irakaslea

Lehenik eta behin, administrazioak kudeatzen dituen lekuetan euskaraz hitz egiteko eskubidea bermatzea eskatuko nuke. Euskara bultzatzeko plan integral baten bidez, eremu bakoitzean plan espezifikoak sustatuko nituzke: komertzioetan, kulturean, gazterian e.a.



o Algorta

Kristina Bilbao-Goyoaga

> ikaslea

Gero eta gutxiago dira hezkuntzan A eredu hautatzen dutenak, eta desagertzea gura nuke. Euskaraz ez daiten gurasoentzat laguntzak eskainiko nituzke, eta posible den heinean, doako euskaltegi publikoak bultzatu. Baina batez ere, gure jarrera da aldatu behar duguna.



[lehen]

PLAZA DE BUTRUE MUSEO



[orain]

ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / PLENTZIAKO ERRIBERA KALEA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > publi-euskarria



2011ko urria, Getxo

Testua: **Arkaitz Gomez** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: *Itsaso hori dago zatarra (naufragoarena);* Xabier Amuriza

Lelau i zana publi-euskarri,
oin saskilleri erakusgarri,
sastraka arten landaturiko
publizidade muñarri. (bis)
Bi dimentsiotan jarri
hamaka genero barri
ta gerta ei danez sarri
denporagaz ze opetzitten zan
ezin da gaur iregarri.
Sano hondakin, kontsumismona,
deu atze txarra ekarri. (bis)

Neske politte fabada jaten,
edo errefresku light bet edaten;
publizistei zergure pronto
burure etorten jaken. (bis)
Akabun, gauz krisi baten,
dirugabe ezin mantén,
iragarkiok berko ken.
Hauteskundeok konbertidute
atzeneko itxaropen,
hor da panela politikoen
"karetoa" itxedoten. (bis)

Irudia holan lotu da eskas
lotu direzan paper horrekaz.
Gizarte honek (ah)aztuten daune
ez da garbitteko kapaz! (bis)
Azaleko ta pesiglas.
Naturagaz ezin jolas,
garbittu ber zoezeaz.
Sastrakak dao z hau jan gurean;
saskilleri gose beraz:
berko deure bai! Panela jan ta
segi gizarte honeaz! (bis)

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

DESKARGATU DOAN EUSKERAZ
www.cianoplan.es/baliabideak

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

hauteskundeak > EAJk irabazi du eskualdean



Eskualdeko herri guztietan irabazi du EAJk

Uribe Kostako herri guztietan irabazi ditu EAJk azaroaren 20ko hauteskundeak. Jeltzaleek 33.291 boto eskuratu dituzte eskualdean, udal hauteskundee-tan baino 2.473 gehiago. Lemoizen (%55), Plentzian (%49) eta Gorlizen (%46) lortu du EAJk boto portzentajerik handiena, eta Getxon (%32), Leioan (%33) eta Berangon (%34) txikiena. Getxon jasotako botoei esker (%29), PP da

bigarren Uribe Kostan, 20.872 botogaz. Hirugarren Amaiur lotu da, 16.943 boto batu ostean. Erandion, Leioan eta Getxon izan ezik, abertzaleen koalizioa bigarren lotu da eskualdeko herri guztietan. PSE-EEK, barriz, 15.730 boto eskuratu ditu, eta bigarren indarra izan da Erandion (%24) eta Leioan (%21). Beste alderdiek ez dute botoen %5 baino gehiago lortu. ○

getxo > abenduaren 3a bizi dezagun egunero!

Euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, Euskal Kulturaren XIII. jardunaldiak antolatu ditu Getxoko Udalak, herriko hainbat elkarte eta ekimenagaz batera. Azaroaren 16an jardunaldien aurkezpena egin eta egitaraua azaldu zen. Bertan izan ziren Imanol Landa Getxoko alkatea, Miren Dobaran Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendaria eta Getxoko hainbat elkarte: Bizarra Lepoan,

ALBE, Sendi, Egizu, UK aldizkaria, euskaltegiak eta Itxartu Dantza Taldea. Lander Solozabal Sendi proiektuko arduradunak parte-hartzen duten elkarteen izenean honakoa nabarmendu zuen: *“Aipatutako elkarte eta ekimenez gain, Getxon pertsona askok lan egiten du euskararen alde”*. Halaber, abenduaren 3an ez ezik, egunero euskararen eguna bihurtzeko gonbitea luzatu zuen. ○



Azaroaren 16an egin zen aurkezpena



Abenduaren 6an egongo da Basaki, 13:30ean

durangoko azoka > abenduaren 4tik 8ra

Gerediaga elkartearen eskutik, urtero legez abendu hasieran helduko da Durangoko Euskal Liburu eta Disko azoka: abenduaren 4tik (domeka) 8ra (eguna). 46. edizio honetan Galizia da herrialde gonbidatua, eta sortzaile euskaldunek eta galiziarrek hainbat ekimen gauzatuko dituzte alkarregaz. Ahotsenea 2011 egitarauaren barruan, egunero 19 aurkezpen izango dira, eta beraz, bost egunetan 95

lan aurkeztuko dituzte 300 euskal sortzailetik gorak. Landako eraikinaren albo batean egongo da gunea eta bertatik igaroko dira, besteak beste, Berri Txarrak, Hesian, Siroka, Su Ta Gar, Rafa Rueda eta Rupert Ordorika. Ohi lege, Plateruena Kafe Antzokiak ere egitarau oparoa prestatu du, eta hainbat kontzertu izango dira: Esne Beltza, Ze esatek!, Etxe, Kerobia e.a. ○

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa

...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siaazgetaria.com / info@siaazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

**kroketa, zaporez
zaude beteta!**

**III. pintxo
lehiaketa**

Abenduak 17 / 18

**Euskarazko hitz gozoak
esan pintxoari eta sari
ikaragarriak irabazi!**

**Getxo
egin**

www.getxo.net

Getxo
bizi ezazu

EUSKARA BIZI

**BFA
DFB**
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Mahou

San Miguel



“Dauzkagun teknikariak, Euskara Zerbitzua eta euskararen alde lan egiten duten eragileak pribilegioa da herri honetarako”

Koldo Iturbe Mendilibar > Getxoko Kultura zinegotzia

Hamar urte beteko du laster Koldo Iturbe algortarrak Getxoko Udaleko zinegotzi. Zuzenbide ikasketak egin bazituen ere, txikitan bestelako ametsak zituela aitortu digu: “Nire bokazioa hegazkin pilotu izatea zan, txikitatik, baina karrera oso garestia zen”. Hegazkin pilotua ez, baina Kultura, Euskara eta Gazteria arloak pilotatzen ditu Iturbek Udalean. Izan ere, euskara izan da beti bere hegazkinik gogokoena: “Nire etxeko ama-hizkuntza zan, amaren hizkuntza zelako, aitzak ez daki euskaraz”. Ama hil zenean, aitite-amamaren etxera bizitzera joan, eta bizkaieragaz bere euskara aberastu zuen: “Nire amamak ‘aulkia’ eta ‘leihoa’ berbak entzun zituenean, ez zekien zer zen, gure artean ‘sille’ eta ‘bentanie’ izan da beti, eta jendeak barre egiten zion. Berarentzat, ‘aulkia’ behieri esnea beratuteko erabiltzen zana zan, eta ‘leihoa’, baserrietako kortan dagoen zirrikitua. Hori kristoren aberastasuna da”. Bizkaiera ezagutzeaz harro egoteaz gain, Getxoko euskalgintzaz ere harro agertu zaigu: “Dauzkagun teknikariak, Euskara Zerbitzua eta euskararen alde lan egiten duten eragileak pribilegioa da herri honetarako”. Euskalgintzan ez ezik, herrigintzan ere Getxo erreferentea da, bere ustez, bestelako irudia duen arren: “Getxo ez da Marbella: dagoen elkartegintza eta dinamismoa, jendearen parte-hartzea, jai-batzorde herrikoiak auzo guztietan... Horrek mantentzen du herria bizirik”. ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

Bost urte sendietan euskaraz

Egizu elkartearen Sendi egitasmoak bost urte bete du. Familia barruan euskararen erabilera bultzatzea dauka helburu. Urtemuga baliatu dugu proiektua hobeto ezagutzeko.

Sendi egitasmoak 5 urte bete du eta hamaika ekimen garatu du azken asteotan, horietako handiena, azaroaren 26ko jai-eguna. Baina, zer egiten du Sendik? Zelan joan dira urte hauek? Egizuko Lander Solozabalek erantzun dizkie galdera horiei.

Egizuk eta Getxoko Udalak elkarlanean sortu zuten Sendi egitasmoa, Getxoko familietan euskara sustatzeko; zehazki, 2 eta 12 urte bitarteko umeak dituztenetan. Baina zelan sortu zen?

Batetik, Udalak ikastaro batzuk antolatzen zituen familietan euskara sustatzeko, baina gurasoentzat bakarrik. Bestetik, Egizuk Berbalaguna antolatzen zuen. Udalak proposatu zion Egizuri horiek biak batzea proiektu bakarrean, eta *“pake-te”* hori eskaintzea Getxoko familiei: *“Eta horixe egin genuen: ikastaroak eta Guraso-laguna egitasmoak batu genituen”*, azaldu du Lander Solozabalek.

Hiru ardatz dauka Sendik, hasieratik: Batetik, euskara ikasteko gurasoentzako diru-laguntzei buruz informatzen du ikastetxeetan. Bestetik, tailerrak antolatzen ditu, eta, azkenik, erabilera sustatzen du: atal horren barruan daude Guraso-laguna eta Olgetan euskaraz egitasmoak; azken hori aurtan abiatu dute.

Getxoko 14 ikastetxeetatik 12tan egin ditu ekimenak Sendik, eta auzo guztietan. Tailerrak 100dik gora izan dira bost urteotan, eta 5000tik gora lagunak parte hartu du: janaria, musika, artea edota ki-



Zer ikusi, ha ikasi tailerra egin zuten azaroaren 21ean

rolagaz lotutako tailerrak izan dira. Gehin-gehienak euskaraz egin dituzte Sendiko lagunak, baina salbuespenen bat badago, adibidez: *“Dantza ikastaro bat gaztelaniaz egin genuen, etorkinak euskal kulturara erakarri asmoz”*. Halere, horie-

«Ikastaroak eta Guraso-laguna egitasmoak batu genituen, familietan euskara sustatzeko»

tan euskaldunik baldin badago, euskaraz eginen diote.

Helburuak betetzen doa Sendi, eta, batez ere, bigarren urtetik aurrera nabaritu zuten arrakasta kudeatzaileek. Ordura arte, hainbat eguneko ikastaroak antolatzen zituzten, eta oso zaila gertatzen zitzaizen taldeak betetzea. Gainera, guraso-

entzako bakarrik ziren, eta umeak begiraleak lotzen ziren.

Hori ikusita, Zabala eskolako gurasoen elkarteok proposatu zuten egun bakarreko tailerrak egitea, eta umeek ere parte hartzea: hura arrakasta! Orain, ikastaroak errepikatu beharra daukate, askotan, nahikoa tokirik ez dutelako; izan ere, tailerrak talde txikietan garatzen dituzte: *“Kalitatearen mesedetan, hobe da talde txikia, handia baino; halere, tailerraren eta gaiaren arabera zehazten dugu parte-hartzaile kopurua”*.

Azaroko ospakizunen artean, eta tailerrez gain, egun osoko jaia egin dute Algortan. Hemendik aurrera, lanean jarraituko dute, *“eta ez da gutxi”*. Jendeak tailerrak eska ditzan lortu gura dute, *“horiek antolatzeko gaude-eta”*. ○

Info+: www.egizu.org

Gaztetxearen aldeko

plataforma sortu dute auzokideek Romon



Urrian aurkeztu zuten plataforma hamarka auzokidek (Argazkia: UKberri.net)

Gobela ibaiaren arroan lanak egiten hasi dira uholde arriskua gutxitzeko, faseka. Konpondu beharreko hurrengo tartea da Errekalde ingurukoa, Romon. Inguru horretan dago Itzubaltzeta gaztetxea eta beste hainbat eraikin, eta ibaiaren lanak egiten dituztenean, eraitsi gura dute. Horren aurrean, gaztearen aldeko plataforma sortu dute auzokideek: Itzubaltzeta Gaztetxearen Lagunak plataforma.

URA Uraren Euskal Agentzia da ibai-ko lanen proiektuaren arduraduna eta Errekagane kaleko lokalak botatzeko *“arrazoia da arauz kanpo egotea, eta ez eraikinak egoera txarrean egotea”*, plataformak azaldu duenez. Horregatik, ibaian egin beharreko konponketak eta gaztetxea bera bateragarriak direla deritzo.

Alde ekonomikoari ere erreparatu dio, eta, jakinarazi duenez, 2010 eta 2011ko udal-aurrekontuetan, urte bakoitzean milioi bat euro gorde dute lokalak eta inguruko lursailak desjabetzeko. Plataformak ez deritzo egoki diru hori xahutzeari, *“egungo krisi ekonomikoan”*.

Gainera, dagoeneko hainbat ekimen abiatu dute plataformako lagunak: auzoko etxetara aldizkari bat helaraziko dute egoera eta plataformaren jarrera azaltzeko; posterrak banatuko dituzte auzoko plazaren inguruko balkoietan ipintzeko; eta sinadurak batzen ari dira (eguen arrastietan ipintzen dute mahaitxoia Santa Eugenia plazan, eta, zapatuetan, tabernaz taberna ibiltzen dira sinadurak batzen). Hogei elkartek eta 400dik gora auzokidek atxikimendua eman dute. ○

EUSKAL KULTURAREN JARDUNALDIAK, AZKEN TXANPA!

Ekimen andana proposatu dute aurtan Euskal Kulturaren Jardunaldiaren barruan. Azaroakabuan hasi ziren ekitaldiak, baina oraindik badago zer ikusi eta zer gozatu. Abenduaren 1ean, Alex Txikon mendigoizaleak hitzaldiak eskainiko ditu Fadurako areto nagusian: *Gailurra non, euskara han*; 17:00, 18:30 eta 20:30ean izango dira. Hilaren 4an, barriz, Dantza kalejira antolatu du Itxartu dantza taldeak Algortan; 12:00etan abiatuko da. Abenduaren 11n, ALBEK bere gala egingo du Algortako Kasinoan, 18:00etan. Hilaren 12tik 23ra, Gotzon Elortzaren dokumentalak emango dituzte, horiek ere Kasinoan. Hilaren 14an, *Txiss Pun* Pintxo tailer multikulturala egingo dute Fadura jatetxe barriko sukaldean, goiz eta arrastiz, eta doan (izena eman behar da Euskara Zerbitzuan). Abenduaren 17 eta 18an, GetxONegin pintxo lehiaketa izango da, eta herriko 40 tabernak parte hartuko du. Azkenik, TELP ikastaroa egingo dute urtarrean eta otsalean, baina izena eman behar da abenduaren 21 eta 26 artean: Euskara Zerbitzura deitu edo mezu elektronikoa igorri: 944 660 070 edo euskara.zerbitzua@getxo.net. Nahikoa duzu horregaz guztiagaz?

HEMENDIK AURRERA: GETXOBERPIZTU!

Getxoberpiztu! proiektua aurkeztu zuten azaroaren 12an. *“Espazio publikoaren erabilera eta eraldatze autogestionatua sustatzeko asmoa”* dauka, eta bere *“helburu nagusia da erabakiak hartzeko prozesu kolektiboa sortzea”*. Zehazki, Algortako Aretxondo kaleko orubea eraldatzea eta egokitzapena proposatu dute proiektuko arduradunek. Aurkezpenaren egunean, proiektua bera eta lekua ezagutzera eman zuten auzokideen aurrean. Datozen asteotan abiatuko dute prozesua orubean zer egin erabakitzeko.

Info+: www.getxoberpiztu.com



Lorezaintza
zerbitzu orokorrak

Tf. 656 754 243

Asociación de Amigos Algorteros
"Amumak"

Asteazken poetikoak
Itsas Fundazioa
Euskara eta Algortako Izenak
Alzheimer, 3. Adina, Boluntarioak

<http://www.algorta.org>
<http://amumak.getxo.net>
e-mail: sotaventoster@gmail.com
Móvil: 656773080

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illeta kalea 1 • ALGORTA

Luix Artola > artisaua

“Egurra goxoa da, polita, epela; eta emaitza gustagarriak sortzen ditu”



Ikastaroan parte hartzeko: 619 935 541 edo egizugetxo@gmail.com

Egur-tailu ikastaroa euskaraz ematen ari da Luix Artola Getxon, Egizu elkartearen ekimenez. Astelehen arrastiro elkartzen da taldea Algortako Aldai Patronatuan, eta oraindino garaiz zabilta parte hartu gura baduzu; maiatzera arte luzatuko da ikastaroa. Artolak egurra lantzea du ogibide. Batez ere, musika tresnak egiten ditu, eta horien artean, bereziki biolinak. Baina ez da erraza egurretik bizitzea: ordu asko lan egin behar du eta salmenta ere ez da erraza. Horregatik eta gustuko duelako, tailuak egiteko ikastaroak ere ematen ditu.

—Egur-lana duzu ogibide?
—Bereziki luthier lana egiten dut: biolinak. Baserrikoa naiz, eta egur zein lanabes artean hazi naiz, betidanik egurra lantzen. Orain dozena bat urte aukeratu nuen egurra ogibide.
—Tresnak egitea ez da oso ohikoa.
—Egur-lanetik pasatu nintzen soinu tresnak egitera. Bilboko musika eskolan badago biolinak egiteko ikasteko eskola, han ikasi nuen. Baina bestelako egur-lanak ere egiten jarraitzen dut, gustuko dut-eta. Tailu ikastaro batzuk ematea

suertatu zitzaidan; orain arte Ugaon eman ditut eta Egizuk aurtan eskatu dit Algortan emateko: ni pozik.
—Biolinari gero soinu polita ateratzeko, zaila ematen du lan horrek.
—Ez da erraza, baina ofizioa da, eta ofizio bat ikasi egiten da. Egurrak aukera asko ematen du: ez da apaingarri hutsa, soinua ere sor dezake. Lehenik, egur, soinu eta akustikaren fisika ikasten da. Gero, hariak, egurra, lodiera, hutsuneak edota tentsioak lotzean, posible da egurrari soinu polita ateratzea.

—Egizuren ikastaroa, ordea, tailuei buruzkoa da, zer ikasiko dute ikasleek?
—Ikasiko dute egurra ezagutzen. Material bakoitzak badauzka bere ezaugarriak, baita egurrak ere; horiek ondo ezagutu behar dira egurragaz gauzak egin ahal izateko:

«Edonork parte har dezake ikastaroan, baita 10 edo 12 urtekoek ere»

altzariak, musika tresnak edota eskulturak. Lehen egunetik hasi gara egurra zulatzen eta lanabesak ezagutzen; horrela ikusten dira egur mota bakoitzaren erraztasun eta zailtasunak. Ez da dirudien bezain erraza: egurra eta lanabesak ezagutu behar dira, baita beraiekaz lana zelan egin ere. Lantzeko erraztenak direnak eta emaitza distiratsuenak lortzen dituzten egurrak dira garestienak, adibidez, gereziondoa; guk haritza, gaztaina edota pagoa erabiliko ditugu. Ezer ez dakienarentzako mundu konplikatua bihurtzen da hasieran, baina poliki-poliki, gauza politak ateratzen dira.
—Beraz, edonork parte har dezake?
—Bai, edonork, baita txikienek ere: behin lanabesak maneiatzeko gaitasuna izanda, hamar edo hamabi urtetik aurrera egurra lan dezakete umeek. Beren sormena adierazteko modua eta eskuakaz sortzeko aukera topatuko dute ikasleek. Gainera, egurrak badu zerbait berezia: goxoa da, polita, epela; eta emaitza oso gustagarriak sortzen ditu.
—Zer bilatzen dute, ogibidea?
—Ez, normalean ez dut topatu ogibide bila datorrenik; baina izan liteke, bakoitzaren trebezia eta gaitasunaren arabera, zergatik ez? Dena dela, normalean zerbait polita egiteagatik etortzen dira, baita denbora pasatzeko ere. ○

Info+: www.egizu.org

Euskara dastatuz

GetxOnegin ospatuko dute **40 tabernak** abenduaren **17 eta 18an**



Sariak zozketatuko dituzte bezeroen artean

Herriko 40 tabernak parte hartuko du aurtien GetxOnegin pintxo lehiaketan. Ostalaritza eta euskara sustatzeko helburua dauka, eta Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, horietako batzuek arrastiz ere eskainiko dituzte lehiaketarako pintxoak. Bezeroek, pintxoa puntuatzeagaz batera, hitz ederren bat ere idatzi beharko diote, eta euskaraz; tabernetan kokatutako postontzietan utzi behar dituzte boto-txartelak.

Tabernen artean hiru sari eta bi aipamen berezi banatuko dituzte: epaimahaiaren ustez pintxorik onenari, herritarren ustez pintxorik onenari eta hizkuntza-paisaia txukunena duen establezimenduari; Euskal Labeldun produktukaz egindako pintxorik onenari eta pintxo tradizional onenari aipamen berezia. Bezeroen artean, barriz, Euskal Labeldun produktuen otzara, afaria Basalbo jatetxean, Kontxi Urdaitegirako 70 euroko erosketa-txartela eta Orixa liburu-dendarako 70 euroko erosketa-txartela zozketatuko dituzte.

Bestalde, *Tabernaz taberna, ahoz aho* izeneko gidatxo ere banatuko dute tabernetan: ostalarien eta bezeroen artean euskaraz hitz egiteko gomendio errazak batzen ditu. ○

GETXOARTE AREETAKO GELTOKIA PLAZAN, ABENDUAREN 2TIK 4RA

Getxoarte Arte Sortu Barrien Aretoaren hamaikagarren edizioa abenduaren lehen asteburuan izango da, 2tik 4ra; urtero legez, Areetako Geltokia plazan ipiniko duten karpan egingo dute. Oraingoan 51 artistak parte hartuko du; epaimahaiak aukeratu ditu, ondokoak baloratuz: autonomia pertsonala, jarrera barritzailea, gogoeta edo ikerketarako jarrera, jarrera kritikoa eta lanen esanahia. Kontxa Elorza eta Iñaki Billelabeitia EHUKo Arte Ederretako irakasleak eta Frank Suarez Ustaritzeko Euskal Kultur Erakundearen arduradunak dira epaileak; arte-aholkularia, barriz, Alicia Fernández, Rekalde aretoko zuzendaria. “*Euskal Herriko arte plastiko eta ikus-entzunezko sorkuntza berria bultzatzeko eta sustatzeko*” helburuagaz antolatu ohi du ekimena Getxoko Kultur Etxeak: helburua da “*arte proposamenik gazteenak erakusteko plataforma izatea, aukera eta bide barriak irekitzea sortzaile berriek euren lana ezagutzera emateko, eta sortzaileek, lan horietan interesa duten pertsonakaz zuzeneko harremana izatea*”. Artelanak tokian ikusteaz gainera, guztiak batuko dituen katalogoa ere argitaratuko dute, artisten curriculumagaz batera. Urte guztiotan, 550 artistak erakutsi ditu lanak Getxoarten.

Info+: www.getxo.net

UDALAREN HITZALDIAK BAKE KULTURARI BURUZ

Udala hitzaldi zikloa egiten ari da “*Bake kultura eta bizikidetzari buruz*”, Fadura kiroldegiko areto nagusian. Abenduaren 2an Iñigo Lamarca Eusko Jaurlaritzako Arartekoak hitz egingo du ondoko gaiari buruz: “*Nola landu behar ditugu giza-eskubideak bizikidetzan hobetzeko?*”. Abenduaren 16an, barriz, Almudena Cacho kazetaria arituko da; ondoko hitzaldia eskainiko du: “*Zein da komunikabideen zeregina bake-prozesuan?*”. Arrastiko19:00etan hasiko dira biak.

Info+: www.getxo.net

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Irantzu Jauregi > Aterpe Leioa Gazteguneako koordinatzailea

“Espreski gazteentzako zerbitzuak eskainiko zituen lokala behar genuen; horregatik lokal barria”

Urtebete pasatxo daroa zabalik Aterpe Leioa Gazteguneak Aldapabarrena kalean. Ordura arte, Kultur Leioan kokatu izan zen Gazte Bulegoa. Irantzu Jauregi da guneko koordinatzailea eta urteko balantzearen barri eman digu.

—Urtebete daroazue lokal barrian, zer-gatik aldatu zuten lekuz?

—Espreski gazteentzako zerbitzuak eskainiko zituen lokala egokitu gura zen. Leioan nahiko gazte dago. Kultur Leioan hainbat zerbitzu geneukan, baina kultur etxeko gainontzeko sailakaz konpartitzen genituen. Gazteei zenbait gauza eskaintzeko leku aproposik ez geneukan; adibidez, informatika edota sukaldaritza arloetako ikastaroak egiteko tokia behar genuen.

—Lokal barrian zer eskaintzen duzue?

—Kultur Leioan bulegoko zerbitzua zen gehienbat, baina orain, aukera zabalagoa da. Gela balioanitzean, hau da, Gaztelekuan, jolasak dauzkagu eta astebururo zabaltzen dugu: ping-pong, makinak, mahai-jokoak, diana, futbolina e.a.; 14 eta 16 urte bitarteko gazteek erabiltzen dute. Sukaldea eta jantokia ere badauzkagu sukaldaritza ikastaroak emateko eta pres-



2010eko irailean inauguratu zuten Aterpe

tatutakoa dastatzeko. Ordenadore-gela, barriz, gazte guztientzako eskuragarri dago; teknologia barriakaz lotutako ikastaroak ere antolatzen ditugu bertan. Musika eta eskulanei buruzko tailerrak ere ematen ditugu. Aterpe 14 eta 35 urte bitarteko lagunei zuzenduta dago. Asteazkenean zehar izaten dira ikastaroak eta harrera ordutegia ondokoa da: asteleheneetik barikura 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era, eta, asteburuetan,

Gaztelekua eta ikasketa gela zabaltzen ditugu, ordutegi berberagaz.

—Nolako harrera izan du Aterpek?

—Balorazioa positiboa da. Egia da hasieran jendeak ohitu behar duela, baina Gaztelekua astebururo betetzen da; negu partean nabaritzen da bereziki, hotzaren ondorioz. Gainera, zenbait ikastaro barriro antolatu behar izan dugu, eskaera handia egon da eta. ○

Nekazariak bulebarrean

Nekazaritza eta abeltzaintza **azoka** **abenduaren 11n** izango da, **bulebarrean**



la Euskal Herri osotik hurbilduko dira nekazari eta abeltzainak

Abenduaren 11n nekazariak inbadituko dute Bulebarra; izan ere, Nekazaritza eta Abeltzaintza azoka ospatuko dute.

Ortuariak, frutak, ogia, txerrikiak, gozoak, gazta, eztiak, pateak, landareak, ardoa e.a. alde batetik, eta animaliak bestetik: behiak, idiak, txerriak, ahuntzak, hegaztiak e.a. Jatekoak dastatu eta erosteko, eta animaliak, ikusi eta ezagutzeko. Denetarik egongo da negu aurreko azken azoka honetan, urtero legez.

Goizeko azoka izango da, jakina denez, eta goizeko 10:00etatik aurrera, postuak bisitatzea egongo da. Ordubete beranduago hasiko da kale-animazioa: bazkalordura arte jo eta jo arituko dira

trikitilariak. Gainera, umeentzako tailerrak eta jolasak, edota herri-kirol erakustaldiak egingo dituzte, besteak beste. Ez da egongo aspertzeko betarik.

Jaki eta edari postuak, batez ere Errekalde plazan kokatuko dituzte, baina bakan batzuk ere egongo dira Bulebarrean. Bertan ikusi ahaliko dira behiak eta idiak.

Baina eskaintza horretaz gainera, 14:00ak aldera Gazta Lehiaketaren sariak banatuko dituzte, Kultur Leioa alboko eskenatokian. Sariokaz batera, postuen eta partaideen giroa lehiaketenak ere emango dituzte. Eguraldiak lagunduko ahal du! ○

EUSKARAREN EGUNA, EKITALDIAK LEIOAN

Abenduaren 3an ospatzen da Euskararen Eguna, baita Leioan ere, eta, aste horretarako, hainbat ekitaldi antolatu dute. Abenduaren 1ean bertso-paper lehiaketaren sariak banatuko dituzte Kandelazubietan, 19:00etan. Jarraian Erdizka Lauetan taldeak erromeria eskainiko du. Abenduaren 3an, barriz, Taberna Kantaria izango da Mendibilen, eta bertso-hop saioa egongo da Gaztegunean; biak hasiko dira 20:00etan. Euskarazko zinemari ere tarte egingo diote Kultur Leioan: hilaren 3an eta 4an, *Katu bat Parisen* umeentzako filma emango dute 17:30ean; hilak 3, 4 eta 5ean, barriz, *Arriya* pelikula proiektatuko dute, 20:00etan.

HERRIAN EROSTEAGATIK SARIAK GABONETAN

Leioako Merkatarien Elkarteak bere bezeroak sarituko ditu Gabonetan. Zehazki, abenduaren 12tik urtarrilaren 6ra, 12.000 euro zozketatuko dituzte Leioako dendetan erosten duten herritarren artean; 50, 100, 500 eta 1.000 euroko deskontu txarteletan banatuko dute diru hori, hain zuzen, herriko dendetan gastatzeko. Horrez gain, gaztainak banatuko dituzte abenduaren 23an, urtero legez, eta abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra, erosketa-poltsak. Azkenik, eskoletako umeen postalakaz apaindutako gabon-zuhaitzak ipiniko dituzte erakuslehoetan.

HAMAR UDALTZAIN GEHIAGO 2012RAKO

Gaueko eta asteburuko zerbitzua handitu asmoz hamar udaltzain gehiago kontratatuko du Udalak 2012an; horrela, gaueko zerbitzuan gutxienez bi unitate izan gura du Udalak. Beraz, ia 50 udaltzain izango du Leioak. Hautaketa-prozesua daborduko abian da, eta, hautatutako pertsonak, Ertzaintzak Arkauten daukan akademian egingo dute prestaketa lanak, hainbat hilabetez.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

Erandioko Gazte Asanblada > Kalezulo gaztetxearen jaiotza

“Beste jendarte eredua eraiki, eta erreferentzia eta eredu izateko jaio da Kalezulo gaztetxea”

Erandioko Gazte Asanbladak bost urte ditu eta hamaika dinamika garatu dute urteotan. Herrian gazteentzako eskaintza nahikoa ez, eta Gaztetxe beharra sumatu zuten: Urriaren 23an okupatu zuten eraikina Jose Luis Goioaga kalean.

—Zergatik sortu duzue Gaztetxea?
—Urteotan, jende asko batu da gure proiektura. Inauteri-jaiak, ikastaroak, Olentzero eguneko antzezpena edota koadrila lehiaketa garatu ditugu, gazteon parte-hartze zuzena bultzatuz. Gazte mugimendu sendo eta jatorrak aurrera-pausoak emateko indarra eman digu, baina gune fisikorik ez izatea muga handia izan da proiektuak sortzeko. Bestalde, Erandioko udalak gazteontzako gune baten eskaerari ez dio inoiz erantzun, hortaz: okupazioa; gazte askoren arteko hausnarketa eta lanaren ondorioz egin genuen okupatzeko hautua. Gure proiektu eta eskubideek edozein enpresa eraikitzailearen asmo espekulatzaileak baino indartsuagoak dira, eta horregatik lortu dugu gazteontzako eta herriarentzako gaztetxea. Utzitako etxe batean sartu eta berau garbitu, konpondu eta erabiltzea izan da biderik eraginkorrena gazteon ametsak egia bihurtzeko.



Gaztetxea okupatu zuten eguna (Argazkia: UKberri.net)

—Lehen saiakeran berehala bota zintuzteten udaltzainek, baina eraikinare jabearen salaketarik ez zegoen, ezta? Nola kokatzen duzue Udalaren jarrera?
—Urriaren 23an okupatu genuen gaztetxea. Biharamunean, Erandioko udaltzainek gaztetxea desalojatu zuten Udalaren aginduz, eta modu ilegalean: jabearen salaketa barik eta derrigorrezkoa zuten epailearen agindu barik. Baina gazteon hautua sendoa denez, egun, Jose Luis Goioaga kaleko 11.ean kokatzen

den Erandioko Kalezulo gaztetxea irekita dago, eta gogor ari gara auzolanean, laster, gaztetxearen ekinbidea martxan jartzeko.
—Eta zein da asmoa, zertarako erabiltzeko duzue gaztetxea?
—Eskaintza kultural zabala emateko, gazteon arteko harremana sustatzeko, elkarregaz ditugun ideiei bide emateko, bestelako jendarte eredua eraikitzeko, eta ondorengo erreferentzia eta eredu izateko jaio da Kalezulo! o

Erandioko arkitektura
Herriko historia bere eraikinen bitartez errepasatzen duen gida argitaratu dute



Urazandi jauregia, Asuant

Erandioko Arkitekturaren Gida etxez etxe banatu du Udalak, “herrian daukagun ondarearen balioa aitortzeko eta herri-tarren artean ezagutzera emateko”. XV. mendetik aurrera altzatutako eraikinak batzen ditu liburuak; Gorka Pérez de la Peña Oleaga historialariak idatzi du eta 10.000 ale argitaratu dute.
Gida horretan udalerrriaren bilakaera azaltzen da, arkitekturaren bitartez. Adibidez, zein den Erandioko jatorrizko herri-gunea: Erandiogoikoako Andra Mari elizaren inguruan elizate modura eratu zen. XIX. mendeko erdialdetik aurrera, industrializazioak herrian eduki

zuen indarra eta eragina ere nabarmentzen da gidan. Gainera, oraintsu udalerriko hirigintzaren bilakaeran eragina izan duen hirugarren sektorearen garapena azaltzen du.
Atalez atal errepasatzen ditu Erandio industrialaren eraketa, herriko arkitekturaren bilakaera hainbat tartetan banatuta, eklektizismoa, modernismoa, euskal estiloa eta erregionalismoa, art déco estiloa eta arrazionalismoa, estilo nazionala eta gerraosteko arrazionalismoa, 50etako modernitatea eta nazioarteko banguarda, eta azken joerak. Herria beste ikuspegi batez azalduko duzue orain. o

EUSKARAZKO
PRODUKTUEN KATALOGO
BARRIA PREST DAGO

Euskarazko Produktuen Katalogo barria kaleratu dute, beste behin ere. Paperean eta sarean duzu eskuragarri, ume eta gazteentzako ehunka produktugaz. Daborduko banatu dituzte 200.000 ale inguru Euskal Herri osoan, eta, horietako 9.500, Erandion. Olentzerori zer eskatu ez dakizu, botaiozu begirada bat katalogoari!
Info+: www.katalogoa.org

EUSKARAREN EGUNEAN
BADAGO ZER EGIN

Hainbat ekitaldi prestatu du Kultura sailak Euskararen Egunaren harira. Abenduaren 3an ospatzen da, baina 1etik aurrera egongo da zer ikusi Erandion. Hilaren 1ean Larria, kutsakorra, mendebaldeko lana antzeztuko dute Altzagako azoka zaharrean, 20:00etan; sarrera doan izango da. Abenduaren 2an, barriz, Erandiogoikoan herri-kirolak, tailerrak, animazioa, disko pottoka eta txokolate-jana egingo dituzte arrastian. Euskararen Egunean, ordea, Astrabuduan kokatuko dituzte ospakizunak. Egun osoan zehar ibiliko dira txistulariak eta trikitilariak, eta, gainera, ondoko ekimenak egongo dira: tailerrak, puzgarriak, pintxo-jana, dantza erakustaldia eta txotxongiloak. Badakizu: ondo pasa, eta euskaraz!

MEMORIA HISTORIKOAZ
INFORMAZIO ESKE

La maleta mexicana: el redescubrimiento de los negativos de la Guerra Civil española de Capa, Chim y Taro izeneko argazki-erakusketa antolatuko du Kataluniako Artearen Museo Nazionalak, eta irudien artean, 1937an Erandioko eskolan egindako bi argazki hautatu du. Horietan agertu eta bizirik daudenak aurkitu gura dituzte, eta, horrenbestez, informaziorik izatekotan, Udalera helaraztea eskatu dute. Erandioko kultur agendan ikus daitezke argazki biak.

Luberri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Blzkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

FOLK-AREN HISTORIARI
BURUZKO BERBALDIA

Euskal Herriko folk musikaren historia izango dute aztergai Kurtzio Kultur Etxean abenduaren 13an. Hitzordua arrastiko 19:00etan jarri dute, eta hizlariak honakoak izango dira: Ritxi Aizpuru, eta Kherau folk taldeko Ibon Ordoñez eta Iker Lopez de Bergara. Folk musikaren historiaren inguruko solasaldia egiteaz gain, musika-tresnen erakustaldi teoriko-praktikoa egingo dute.

SEKEKON ENTSEGU
LOKALA ATONDUKO DUTE

Sopelako Gazte Asanblada buru-belarri dabil gaztetxean musika-entsegu lokala atontzen. Proiektua aurrera eramateko, herriko jendearen laguntza eskatu dute, auzolanean dabilta-eta. Beraz, musikazalea bazara eta lagundu gura baduzu, eguaztenero asanbladara hurrera zaitezke, 20:30ean.

EMAN IZENA GABONETAKO
BARNETEGI IREKIETAN!

Udako oporretan legez, gabonetan ere umeei barnetegi irekietan parte hartzeko aukera izango dute aurtten. Izen-ematea zabalik dago jada (abenduaren 16ra arte), eta 4 eta 12 urte bitarteko umeei dago zuzendua, 55 euroren truke. Abenduaren 26tik urtarilaren 5era (9 egun) 09:30etik 14:00etara izango dira, eta hainbat ekintza izango dituzte: tailerrak, eskulanak, kirola e.a.

ADIN GUZTIENTZAKO
ANTZERKIA ABENDUAN

Antzerkia gustuko duetnak zorionekoak izango dira Sopelan abenduan. Euskara Asteko antzezlanaz gain, beste hiru antzerki hurreratu dira Kurtzio Kultur Etxera. 17an antzerki erakustaldia izango da Batuketao taldea eta Getxoko antzerki eskolaren eskutik. Hurrengo egunean Periplo teatroren txanda helduko da, eta abenduaren 21ean, “Gabon Kontuk II” haur-antzerkia.

Euskaraz barra-barra!

Tailerrak, antzerkia, bertso-poteoa, hitzaldia... hamaika jarduera Euskararen Astean!



Eriz Magoa abenduaren 3an helduko da Kurtziora, arrastiko 19:00etan

Azaroaren 29tik abenduaren 4ra Euskararen Astea ospatuko du Sopelak, euskararen nazioarteko egunaren harira. Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiko ki-dearen hitzaldiak zabalduko du astea, ‘Gure leku izenak, Sopelantatik Sopelara’ berbaldiagaz. 19:30ean hasiko da, Kurtzion. Hurrengo egunean tabernaz ta-berna ibiliko dira sopeloztarrek arrasti-ko 19:00etatik aurrera, bertso eta pote-akaz. Barikuan ‘Baginaren bakarriket-ak’ antzezlan izango da Kurtzion, 19:30ean.

Astebururako ekitaldi ugari prestatu

ditu Udalak. Hasteko, bai zapatuan baita domekan ere, 11:00etatik 14:00 arte, haurrentzako tailerrak prestatu dituzte udal pilotalekuan: taloak egiteko ikastaroa, globoflexia, arte tailerra, txo-txongilo tailerra, euskal mitologiaren kamishibaia eta txapa tailerra. Arrastian, Eriz magoaren txanda helduko da, 19:00etan Kurtzion. Domekan, ‘Hara-gizkoa’ ikuskizunak Euskararen Astea biribilduko du; Rafa Ruedak eta Edorta Jimenezek, besteak beste, hitza, musika eta irudiaren arteko fusioa egingo dute. 19:00etan hasiko da, Kurtzion, o

Ainhoa Garai > ‘Baginaren bakarriketak’ antzezlaneko aktorea

“Antzezlanean emakumeen sexualitatea lantzen dugu, lotsak alde batera utziz”



Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai dira obrako protagonistak

Abenduaren 2an helduko da Sopelara ‘Baginaren bakarriketak’, 19:30ean Kurtzio Kultur Etxean. Goenkalen ibili-tako Ainhoa Garai arrasatearra da obra-ren aktoreetako bat.

—**Moldeak apurtzen dituen antzezlan-a da ‘Baginaren bakarriketak’, ezta?**

—Bai, obraren idazlea Eve Ensler femi-nista da. Bere lagunei euren baginekin izandako esperientzien inguruan galde-tu, eta berrehundik gora emakume elka-rrizketatu zituen: arlo desberdinetakoak, jatorri ugaritakoak... Obra elkarriketa horietan oinarritzen da.

—**Obrak, beraz, emakumeen sexualita-tea lantzen du inolako lotsarik gabe.**

—Bai, argi eta garbi hitz egiten da ema-kumeen sexualitatearen inguruan eta hori da obrak duen xarma. Lotsak alde batera utzi, eta egun tabua den gai baten inguruan lasai asko hitz egiten da. Obra komedia dela esan daiteke. Hamabi bakarriketa kontatzen dugu, eta gehie-nak komikoak dira, baina badaude pare

bat dramatikoak direnak: biolazioaren inguruan eta Jugoslaviako gerrako abla-zioen inguruan... Bizitzak alde onak ditu, baina alde txarrak eta pasarte tristeak ere baditu, horregatik lantzen dugu hori.

—**Publikoa ez da ohituta egongo horre-lako gaiak entzuten. Zelan hartzen du?**

—Egia esateko erantzun oso ona nabari-tzen dut. Hasieran bai igertzen dela publikoarengan lotsa apur bat. Oso aurrerakoitzat dugu gure burua, baina benetako momentua heltzean, nahikotxo

«Komedia da, baina
bakarriketa pare bat
dramatikoak dira»

lotsatzen gara. ‘Bagina’ hitza entzun eta barre urduriak ateratzen dira hasieran, ohitzen diren arte.

—**Gizonak ere gonbidatuak daude?**

—Gonbidatuak daude, noski! Ikusleen gehiengoa emakumeak izaten dira, baina gizonak ere animatzen dira, obra denei zuzenduta baitago. o

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhilton.com

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.


ANDER
DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



http://www.etxeart.com

Ziortza eta Itxaso Zelaia Zorrilla > Berangoko haur-eskolan, leku barik

“Haur-eskola handitu beharko litzateke, eta Partzuergoak umeak onartzeko irizpideak aldatu”

Hainbat familia kexu da Berangon haur-eskolan leku barik lotu direlako. Haur-eskolen Partzuergoak egoera konpontzeko asmorik ez duela salatu dute.

—Haur-eskolan leku barik lotu zaretela salatu barri duzue. Zer dela-eta sortu da egoera hau?

—Iraileko izen-emate epean umeak matrikulatzera joan ginen eta leku bi bakarrik lotzen zirela esan ziguten. Matrikulazioa egin eta behin-behineko zerrendetan ikusi gendun Berangoko 14 ume kanpoan gelditu ginela sehaska gelan. Arazoa izan da aurtun haur-eskolak maiatzean zabaldu zuen izen-emate epean matrikulazioen %75 jaso zuela, eta haur-eskola bete egin da. Eta ez du kontuan izan zer-nolako eskaria egongo den urtea amaitu arte. Urte bateko gelan eskari gehiago egon denez, sei geletatik lau, urte bateko haurrakaz bete dituzte, eta beste biak bakarrik sehaska gelarentzat. Orduan maiatzetik hona sehaska gelarentzat bakarrik leku bi egon dira. Eta gainera lekuak bete dituzte Berangokoak ez diren umeakaz, eta berangoztarrok beste herri batzuetara joan behar izan dugu.

—Eta zer dela-eta bete da Berangoko haur-eskola kanpoko umeakaz?

—Berangoko haur-eskola zabaldu zenean



Partzuergoaren arabera, Berangon bakarrik daude kexak arautegiagatik

inguruko bakarra zen, baina orain udalerri gehienetan badago. Haur-eskola honetan ez dago aparkatzeko arazorik, eta hemengoa lehenengoa izan denez, erreferentzia onak ditu.

—Gela nahiko daudela uste duzue eskariari aurre egiteko?

—Haur-eskola txiki lotu da. Jende barria etorri da bizitzera, gero eta ume gehiago dago eta lekua falta da.

—Konponbidea nondik etor daiteke?

—Alde batetik, haur-eskolako Partzuergoak haurrak onartzeko irizpideak aldatu beharko litzuzke. Bestetik, haur-eskolaren eraikuntzak berak ez du ematen haur guztiak hartzeko; handitu beharko litzateke. Partzuergoagaz harremanetan jarri gara eta jaso dugun erantzunagaz ez gaude ados. Arauak aldatzeko prest ez daude, antza Berango baita arazo hau duen bakarra. Alkateagaz ere batu gara konponbide bat bilatzeko. ○

Langabetuen Asanblada > 35 lagun batu dira Urdulizen

“Enpresen eta Udalaren inplikazioa eskatzen dugu enplegua sortzeko”



Astelehenetan 19:00etan batzen dira, Kultur Etxean

Lanpostu faltaren aurrean geldi lotu beharrean, mobilizatzeko erabakia hartu du hainbat urduliztarrek. Langabetuen Asanblada duela hilabete baino gehiago batzen hasi zen, eta daborduko 35 bat lagun hurreratu dira.

—Zeintzuk dira Langabetuen Asanbladak lortu gura dituen helburuak?

—Enplegua sortzea gura dugu, eta horretarako Urdulizko enpresak eta Udala inplikatu gura ditugu. Ospitalearen obrei, adibidez, lehentasuna emango diegu: orain dela urtebete hasi ziren obrak, eta beste hiru urte falta zaie amaitzeko. Bertako igeltseroen %30 Urdulizkoak izatea eskatzen dugu, eta gauza bera eraikuntza-enpresakaz e.a. Ospitalea amaitzean, garbiketa eta gainerako zerbitzuen langileen %60 urduliztarrek izatea eskatuko dugu. Kontratuak aldi batekoak izango lirateke, urtebetekoak, eta horrela langileen arte-

an rotazioa egingo litzateke. Horrela, herriarentzat lana eta aberastasuna sortuko genuke.

—Enpresakaz batzen hasi zarete?

—Bai, eta gure asmoa Udalagaz batzea ere bada, alderdi guztien inplikazioa lortzeko. Lokala izatea ukatu digutenez, estatutuak egiten ari gara, elkarte bezala erregistratzeko.

“Ospitalea amaitzean, urduliztarrek langileen %60 izatea gura dugu”

—Urduliz bezalako herri batean hainbeste kide batzea Langabetuen Asanbladan, zelan baloratzen duzue?

—Alde batetik positiboki baloratzen dugu, herritar asko mobilizatu garelako. Baina bestetik, gure egoera kontuan hartuta, ezin dugu ondo baloratu, denok gura dugulako lan egin. ○



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osagarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

OSTAIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA



Abant

Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa

Ikaskuntzaren Zailtasunak

(idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Basarrate 20 lonja 48991 (Algorta-Getxo)

Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

GORLIZ, PLENTZIA ETA
URDULIZEN, EUSKARAREN
ASTEAK ABIAN DIRA

Euskararen nazioarteko egunaren harira, jarduera ugari antolatu dituzte Uribe Kostako Mankomunitateko herrietan. Gorlizen lau eguneko egitaraua prestatu dute. Abenduaren 1ean “Morritson eta Gartzia: kultoko antzezlan” komedia izango da, Teresianoan 19:00etan. Hurrengo egunean, Asier Kidam Magoa helduko da, Teresianoan 18:00etan. Zapatuan graffiti lehiaketa egingo dute eleiz plazako pilotalekuan, 11:00etatik aurrera. Amaitzeko, abenduaren 4an, triki-poteoa antolatu dute, Portalenan 13:00etan. Plentzian abenduaren 2an ipuin berotikoak entzuteko aukera egongo da, 19:15ean Goñi Portalen. Ondoren triki-poteoa egingo dute Socairen, 20:00etatik aurrera. Urdulizen, barriz, Tor Magoak emango die hasiera ospakizunei, abenduaren 1ean, 18:00etan Kultur Etxean. Hurrengo egunean, ordu eta leku berean, Pepa eta Kutxo pailazoak helduko dira. Zapatuan tailerrak egingo dituzte, eta arrastian, Eidabe taldearen “Nortasunaren bila” antzezlan izango da, 20:00etan. Euskara, bestela ez gara!

GABONETAN, EROS EZAZU
DENDA TXIKIETAN!

Komertzio txikiak bultzatzeko asmoz, kanpaina abiatu du Mankomunitateko Behargintzak, gabonetako erosketei begira. Berango, Sopela, Plentzia eta Gorlizko merkatarien elkarteakaz hitzarmena sinatu eta ekimenak antolatzeaz gain, hainbat ikastaro antolatuko ditu Behargintzak.

PLENTZIA

Joaldun Eguna ospatuko dute abenduaren 3an



Joaldunek kalejira egingo dute Plentziatik

Zintzarriak astinduko dituzte Plentzian dozenaka joaldunek abenduaren 3an. Plentziako zanpantzar taldearen eskutik, Joaldun Eguna ospatu eta hainbat jardue- ra antolatu dituzte.

Arrastiko 17:00etan hasiko dira zin- tzarriak astintzen. Txupina bota, eta herri ezberdinetatik hurreratuko diren joaldu- nek kalejira hasiko dute, Plentziako zubi zurutik. Lehenengo geltokia portuan egin- go dute, 17:30 aldera. Ordu erdi beran- duago harrera egingo diote kalejirari eleiz

plazan. Arrastiko 19:00etan amaituko da kalejira Astillero plazan, eta udaletxearen eskaileretan familia-argazkia aterako dute. 20:00etan trikiak lekukoa hartu eta triki-poteoa egingo dute erriberan. Gaueko 22:00etan joaldunentzako afaria prestatuko dute frontoian, eta gauerdian pilotalekuan bertan Euskal Jaia egingo dute DJ Kul-ek girotuta. Parranda luzea botatzeko asmoa dute plentziarrek. Izan ere, jaiaren amaiera goizeko 06:00etara- ko iragarri dute. Ondo pasa! o

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz

[agenda]

Aza. 28 - Abe. 22

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

- GETXO**
► **Emakumeenganako indarkeria.** Abenduaren 10era arte. Algortako Kultur Etxean.
► **Photopainting.** Abenduaren 19tik aurrera. Algortako Kultur Etxean.

MUSIKA

- SOPELA**
► **'Haragizkoa' ikuskizuna.** Abenduak 4, 19:00etan. Kurtzio Kultur Etxean. 3 euro.

- GETXO**
► **Ankenai.** Abenduak 15, 20:00etan. Areetako El Comercio kafean. Doan.
► **Malvadillos.** Abenduak 21, 20:00etan. The Piper's Irish Puben.

- GORLIZ**
► **Leioako Gazte Orkestra.** Abenduak 21, 20:00etan. Kultur Leioan. 4 euro.

ANTZERKIA

- SOPELA**
► **Baginaren bakarriketak.** Abenduak 2, 19:30etan. Kurtzio Kultur Etxean. 3 euro.

- BARRIKA**
► **Magia ikuskizuna.** Abenduak 3, 18:00etan. Udaletxean.

- ERANDIO**
► **Las presidentas.** Abenduak 10, 19:30etan. Altzagako azoka zaharrean. 5 euro.
► **Sexo, ¿por que no?** Abenduak 18, 19:30etan. Astrabuduko kultur etxean. 4 euro.

Info+: ibilaldineurtuaseiherri.blogspot.com

► **Ibilaldi Neurtua**
Ibilaldi Neurtua Berangon, abenduaren 4an
XXIX. Ibilaldi Neurtua egingo du Sei-Herri kultur elkarteak Berangon datorren abenduaren 4an; apur bat atzeratu bada ere, ez du hutsik egingo. Ohiko legez, Sei-Herri tabernatik urtengo dira ibilbide biak, nagusiena eta umeena. Nagusiek, 08:15ean dute izen-ematea, eta 09:00etan hasiko dira; umeek, barriz, 09:00etan eman behar dute izena, eta 09:30ean hasiko dira. Ibili ostean, herri-pilotalekuan elkartuko dira parte-hartzaileak, elkarregaz bazkaltzeko: nagusiek 5 euro ordaindu beharko dute, eta umeek, doan bazkalduko dute. Eguna amaitu orduko, guztiek espero duten sari-banaketa egingo dute, 18:30 aldera. Beroketak egiten has zaitezke!

• **Non:** Berangoko Sei-Herri tabernan • **Noiz:** Abuztuaren 4an

- GETXO**
► **Kontularien kluba.** Abenduak 16, 19:00etan. Algortako Kultur Etxean.

- BERANGO**
► **Simon Otxandategi Dantza Taldea.** Abenduak 17, 19:30etan. Berango Antzokian.

- LEIOA**
► **Mintzo dantza ikuskizuna.** Abenduak 18, 19:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.

ZINEMA

- GETXO**
► **The killer inside me.** Abenduak 2, 21:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,90 euro.
► **Sorgin bat etxean.** Abenduak 4, 17:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,10 euro.
► **El oso Yogui.** Abenduak 11, 17:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,10 euro.

- LEIOA**
► **Arriya.** Abenduaren 3tik 5era, 20:00etan. Kultur Leioan.
► **Katu bat Parisen.** Abenduak 3 eta 4, 17:30ean. Kultur Leioan.
► **Olentzero eta oparien ordua.** Abenduak 14 eta 15, 10:00etan. Kultur Leioan.

BESTEAK

- ERANDIO**
► **Sexu-aholkularitza.** Abenduak 2 eta 16, 18:00etatik 20:00etara. Drogamenpekotasun gelan.

- GETXO**
► **Getxoarte.** Abenduaren 2tik 4ra. Areetako Geltokia plazan. 2 euro.
► **ALBE Gala.** Abenduak 11, 18:00etan. Algortako Kultur Etxean.
► **Izotz-pista.** Abenduaren 17tik aurrera. Algortako Biotz Alai plazan.


- GORLIZ**
► **Sortzez Garbiaren eguna: azoka, Barraskilo Txapelketa eta erromeria.** Abenduak 8. Eliz Plazan eta pilotalekuan.
► **Autodefentsa ikastaroa:** izena emateko azken eguna. Kultur Etxean.
► **Gorliz Irratiaren irrati maratokia.** Abenduak 18, irratitik zuzenean.

- LEIOA**
► **Nekazaritza eta abeltzaintza azoka.** Abenduak 11. Bulebarrean, eta Jose Ramon Aketxe zein Errekalde plazetan.

- PLENTZIA**
► **Bigarren eskuko mendi materialaren azoka.** Abenduaren 12tik 20ra. Goñi Portalen.

- SOPELA**
► **Hitzaldia: Euskal Herriko folk musikaren historia.** Abenduak 13, 17:00etan. Kurtzio Kultur Etxean.

[albuma]



Hezetasun 'handia'

Azkenean, badirudi hotza eta hezetasuna sumatzen hasi direla, baina, Getxon, nahikoa hezetasun izan zuten azaroan, San Martin jaietan. Hezetasuna auzoko jaiak ospatu zituzten, eta, aurtan, handiak izan dira benetan: rock kontzertuak, paella-jana, tiragomas lehiaketa, musika emanaldiak, umeentzako jolasak, dantzaldia e.a. Txikitetasunetik gauza handiak eginez, hezetasun 'handia' bizi izan dute Algorta aldean.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Uholdeak Romon

1983an

Nork ez dauka gogoan irudi gogoangarri hau? Guztiek ez zenuten oraindino ikusiko, baina askoren buruetan grabatuta dago. Batzuek, 1983ko abuztuko uholde handiak bizi izan zituzten; Romon, adibidez, gogorrak izan ziren. Baina, askok eta askok, ez zituzten pairatu: batzuek gazteegiak direlako, besteek beren herrietan ez zirelako hain latzak izan. Zoritzarrez, gaurkotasun gaia da orriotara ekarri duguna: uholdeak. Non eta, Getxon! Puri-purian dagoen gaia, askotan aipatu dugu UKn, eta badirudi, apurka-apurka, zer edo zer mugitzen hasi direla. Ondorioak herritar guztien gustukoak izango ahal dira!

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[berbetan]

Kongresu baterako egun gitxiko bisitan egon da Carlos Aznarez (Buenos Aires, Argentina; 1947) Euskal Herrian, laster itzuliko bada ere. Berangon egin genuen hitzordua *Rebelde sin tierra, Los sueños de Bolívar en la Venezuela de hoy, Palestina. una nacion, un pueblo*; edota *Hugo Chavez: Del Nacionalismo Revolucionario Al Socialismo* liburuen egileagaz. Resumen Latinoamericano irrati-telebista saioetako zein aldizkariko zuzendari eta Info7 eta Berriako kolaboratzaile da Aznarez. Euskal Herriaren Lagunak (harremanetarako: ehlargentina.blogspot.com) elkartasun sareko kide garrantzitsu da, eta besteak beste Buenos Airesen euskal taberna ere zabaldu barri dute (Chacabuco 608, Mexiko kaleagaz izkina egiten).

Carlos Aznarez

Euskal Herria begi argentinarrez

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Oraintsu bozak Argentinan, Kirchner aroa luzatuko du Cristina Fernandezek. —Zenbait konturen ondorio da. Argentinak 2001ean eztanda egin zuen, hondoa jo; orain Greziak legez. Herriak erantzun indartsua emon zuen, bat-batekoa, etsipenak eragindakoa, baina ez antolatua. Kontu liluragarriak egin ziren, asanbladak, lantegiak berreskuratu e.a. Dana urtzen joan zen, sistema ez delako leloa, badaki ez antolatuz gero... Azkenik hauteskundeak deitu eta aukera bi: Menem ala Kirchner. Lehena irabazle, baina bigarren itzulira ez zenez aurkeztu Kirchner presidente, bozken %20gaz! “Edonor Menemen baino!”, horrek batu gintuen. Kirchnerena larrialdi-gobernua izan zen; baina argentinarrentzat gai pisutsuak direnetako batzuk, adib. giza eskubideenak, gidatzen trebea izan zen; Estatuaren ize-nean barkamena eskatu zuen, lehenengoz militarren aurkako epaiketak bizkortu eta kartzelaratu. Baina ez zen bere ekoizpena izan, herri-borroka baino! Gizarte gaietan asistentzialismoan jardun zuten, eta dihardute. Gobernura heldu zen soja


landatzearen lehia eta erokeria hasi zenean; lur-sail zabalak sojasoro bihurtu dituzte! Beldurgarria da, transgenikoa delako, ondorio latzak ordaindu beharko ditugu. Baina Estatuaren diru-kutxak betetzen ditu, eta ateratako dirua asistentzialismora bideratzen da: zertxobait banatu, baina lan aukerak eraiki barik; lanik ez egiteko kultura barnerarazten badute, ondorioak ordaindu beharko ditugu! Baina horrek kirchnerismoari herri-sostengua erraztu zion, hasieran Kirchneri,

“Limurkeriatan Chavezegaz, limurkeriatan Obamagaz ere bai”

gero ondorengo eta emazte Cristinari. Kirchner hil eta, bitxia, baina masa kontu bihurtu da; eurek salbatzera etorri zenean heriotza legez sentitu zuten! Erabilera oso marketingnizatua emon zioten, luto-ari barne, horri Cristinaren neurri sozial batzuen aldeko jarreraren erradikalizazioa gehituz... Soldatek gora egin dute, baina inflazioak ere bai, beraz berdin! Baina

hain ondo saldu dute, ezen giza-aurrera-pen garrantzitsua gertatzen dabilela dirudien! Hiriburutik urten eta pobrezia denean nagusi! Erakus-leihoko gobernua da, ederra, baina atzamarka txikienak azaleratzen ditu mendekotasun harremanen ondorio latzak! Limurkeriatan dabil-tza Chavezegaz, Obamagaz ere bai; negozioak dituzte Ekuadorregaz, Europar Batasunagaz ere bai. Kapitalismoa ontzat dute, ALBA edo Alternatiba Bolivariarra lako akordio iraultzaileenak aprobetxatu

barik. Baina, Cristinaren bozka-uriola ezin uka! Kontu bigatik lortu ditu: egin-dako politika horregatik eta ez dagoelako oposiziorik. Ez du esan gura eskumarik ez dagoena, gobernuan dago. Ezkerra bu-rua ezin altxa dabil 70. hamarkadatik, militarren sarraskitik. Alderdiekiko adie-razpenetan ia islatzen ez bada ere, kalean badago. Baina, kirchnerismoak erraz du



bidea, arrisku bakarra: ondorengo auke-
ratzeko barne-borroka.
—**Brasil, Guatemala, Nikaragua eta Pe-
run ere izan dira hauteskundeak.**

—Prozesu oso ezberdinak dira. Zalantza-
rik ez dut Hego Amerika orain 20 urte
baino hobeto dagoela. Prozesu iraultzaile-
ak daude, baita prozesu aurrerakoiak ere.
Iraultzaileak dabilta benetako aurrerape-
nak egiten: Venezuela, Bolivia, Ekuador
eta beti Kuba. Hainbat prozesu aurrerakoi
ere daude: argentinarra; Paraguaiakoari au-
rrerakoia esaten badiote ere atzerakoia da
(Lugok ia herrialde osoa militarizatu du,
sindikatu eta nekazariburuak atxilotu
e.a.); Humala -Peru- heldu barria da, eta
egin duenagatik asistentzialismoaren alde
dagoela dirudi, AEBkaz, inperioagaz, ha-
rremanak nahiko koipeztuta mantentzeko
asmoa duela, loturak apurtuko zituela uste
banuen ere; Nikaragua, garaipen garran-
tzitsua da herri mugimenduarentzat, Or-
tegak aurreko hanka-sartzeetatik ikasi du,
eta legealdiaren amaieran klase kolpatue-
nekiko harremanak lehengoratzeko asmo-
agaz egin du politika, ez hain asistentzia-
lista, lanpostuak sortzearen aldekoagoa,
kooperatibak eratuz, andrazko nekazarien
jabekuntza bultzatuz e.a. Ezin ahaztu Eli-
zagaz egindako aliantzak, “non santa”, le-
hen sandinismoak etsai bazuen ere; ez da
ona! Baina, hori dana posible da Nikara-
gua lako zinez herri benetan pobrean,
transnazionalengatik oso jakeaturik dago-
ena; Guatemala lako esperientziak, atzera-
kada itzelak dira. Aspalditik salatzen zena-
ren ondorio da, behetik negoziatzeagatik.
Gerrillak behetik negoziatzen duenean
ondorioak herriak ordaintzen ditu, 100
urteko atzerapausoa gertatzen da. Gober-
nukoak 150.000 guatemalar akatu zituz-
tenak dira! Berberak gerrillagaz bakea ne-
goziatu zutenak! Perez Molina ultras-
kuindarra da, nazia, militarki okerrenaren
sortzaile. Txarto egindako negoziazioaren
ondorioz, ez zelako ezer ere egon armak
entregatu eta bakea itundu orde... Orain,
neoliberalismoa sendotu, nekazariak be-

hartsuagoa, eta segurtasun eza deitzen ba-
diote ere, herriaren aurkako errepresioa
arazo larria dute, hildakoak, femi-
nizidioak, deskalabrua; atzerakada itzela!
—**Eta AEBen bidetik, Mexikoko presi-
dentearen “narkoari gerra” estrategiagaz
bat egingo ei du; hor ere bozak 2012an.**
—Mexiko inperioaren diskurtsoaren go-
torleku da, Kolonbiagaz batera. Drogaren

“Zalantzarik ez dut, Hego Amerika orain 20 urte baino hobeto dagoela, baina...”

kartelen arteko lehiaren aurkako gerraren
izenean, eta horretan “laguntzeko” AEBe-
tik tantaka sartzen dabilen inbasio milita-
rragatik, zein Gobernuaren jarrera neoli-
beralagoagatik egoera oso-oso larrian da-
go! Eguneroko 30-60 hildako! Sarraskia,
odol-hustutzea! Larriena, horren aurrean
ez dutela lortzen erresistentzia mugimen-
du bateraturik, erakunde indartsuak egon
arren; bai, kontinente bat bezain handia
da, baina egituratu behar dute. Zapatistek
ahalegina egin zuten, borroka guztien
batasuna planteatzean, jatorrizko herria-
kaz bakarrik lortu zuten, eta dioten legez,
ezkerreko erakundeek gehiago pentsatu
zutelako euren diputatuetan, Mexiko
salba lezakeen eta politiko ustel horiek
guztiak kaleratuko lituzkeen mugimendua
sortzean baino. Orain garai batean ustelak

“Esan dezakegu irabazi dugula, badakigulako terroristatzat zituztenak askatasunaren borrokalariak zirela ”

eta hiltzaileak zirelako botatako PRI alder-
diak irabaztea espero da. Bestalde, gerta-
kari oso interesgarriak orain Txilekoak di-
ra; gazteak asaldatu dira, mugimenduak
buruzagiak baditu ere oso asanblearioa da
eta hezkuntza inklusiboa eta irabazi asmo
bakoa eskatzeko aldarriaz urten baziren
ere, herri-mugimendu osoa berpiztea,

eurengana batzea lortu zuten. Erakusten
digu: zergati justua dagoenean eta mobili-
zaziorako zein kalearen batasuna egitura-
tzeko izpiritua izanik gauzak lor daitezke-
ela. Eskumako gobernari Piñeira estu da
bere praktetan, ikasleak aurrera egin dute-
lako, errepresiorik gogorrenari desafio egi-
nez; jotzeaz gainera, hil luzez iraun dutela-
ko eskola okupatueta gazteek, leku po-

breenetakoak asko, hezkuntza autokudea-
tzen, euren buruak ere politikoki hezten...
—**ESMAkoak epaitu dituzte orain. Me-
moria berreskuratze-lana, justizia, bikti-
mak e.a. Gurean ere emoten du zer esana.**
Zer ikas genezake argentinarrengandik?
—Argentinak ekarpena egin dezake,
abanguardia izan delako Giza Eskubideen
defentsan, mobilizazioaren iraunkortasu-
nagatik eta memoriaren borrokagatik.
Gurean biktimarioak (biktima-sortzaile-
ak) beti zigorbakoak ziren, eta geure bik-
timen hilotzak agertu ere ez ziren egiten!
Bataila oso desorekatua izan zen, baina
irauteagatik irabazi zen, inoiz ez genion
borrokatzeari utzi. Azken hamarkadaotan
gure kideen memoria berreskuratzeko
beharra ere izan dugu, nortzuk ziren
borrokalariok, gazte talde batek “mendi-

ra” zergatik jo zuen belaunaldi barriei
kontatzeko beharra izan genuen. Esan
dezakegu irabazi dugula, gaur jakin bada-
kigulako terrorista izendatzen zituzten
gazte haiek askatasunaren aldeko borro-
kalariak zirela. Euskal Herrira ekarriz,
memoriaren gaia oinarritzkoa dela.
Demonio bietan ez jaustearen kontua ere

funtsezko da; ez dira berberak Euskal
Herriaren independentziaren alde borro-
katu zirenak, zapaltzailearen aurrean
armak eskuetan hartu zituztenak eta Es-
painiaren edo Frantziaren izenean tortu-
ratu, kartzelaratu eta hil zutenak, zapalt-
zaileak. Argi eduki! Neuk, benetan, ez dut
uste torturatzailea eta herri-borrokalaria
adiskide daitezkeenik. Esango dute:

“Geure irakaspena: ez ditugu sekula biktimatzat onartu gureak hiltzen ibilitakoak...”

“aurrera egin dezagun, eta ahaztu”; geuk
genion: ez ahaztu, ez barkatu; hori argen-
tinar adibidea da, ez dugu katedrarik
eskaini gura. Ikusteko dago hortik zelan
urten hemen. Euskal Herrian, nire ustez,
borrokalarien memoria berreskuratzea,
belaunaldi barriei kontatzea, eta biktimak
nortzuk diren definitzea oso garrantzitsua
da. Borrokalaria biktima da? Borrokalaria
borrokalaria da. Kausa batengatik borro-
ka armatua deliberatu duena ez da ezeren
biktima, borrokalaria da. Biktima, zeha-
rreko norbait da, akats edo atentatu baten
ondorioz hildakoa, militatu barik zapalt-

zaileak torturatua, hila. Torturatzailea,
hiltzailea ez da ezeren biktima, hil bazu-
ten ere. Eztabaida luzea da. Geure irakas-
pena: ez ditugu sekula biktimatzat onartu
gureak hiltzen ibilitakoak; inoiz ez diegu
barkamenik ezta errukitasunik ere eskatu.
Argentinako giza-eskubideen mugimen-
duak, gaur egun, duen indarra du denbo-
raren joanean lortu zuelako, mobilizazio-

aren bidez, biktimarioak inguratzen joa-
tea eta gobernu behartzea haiek kartzela-
ratzea, eta ez urrezko zeldatan. Zenbat
urte joan dira bitartean? 30 urte! Inork ez
dezala espero kontuok 10 egunean kon-
pontzea! Baina nora heldu gura den argi
edukita, garbi dago, heltzen da! Herrita-
rren osasun mentalerako ere onuragarria
da; gaiari konponbidea ematen ez bazaio
arlauza izan daitekeelako beti. Oso arris-
kutsua da, justizia egiten ez bada, gero
mendeku gura sor litekeelako.
—**Donostian batu dira Euskal Etxetako
asko oraintsu. Diasporak zelan parte har**

dezake garai barriotan?

—Funtsezkoak dira nazioartearen, babesa
baino, kudeaketaz gainera, elkartasun ba-
bes internazionalak. Diasporak oinarritzko
papera bete behar du; Argentinan euskal
jatorriko ia 3 milioi lagun dago, berton
beste! Halere, diasporak, oro har, euskal
etxeetan sartuta dagoen jendea dakarkigu
burura; hor badira kide bikainak, baita
Euskal Herriak bost axola dienak ere.
Geu Euskal Herriaren Lagunak egin gi-
nen; argentinarren euskaldunekiko elkar-
tasuna lortzen dihardugu. Presio, salake-
ta, sentsibilizazio eta informazio taldea
sortu dugu: azken barikueta kalera goaz
euskal presoen aldeko sinadurak biltzeko,
Gebara liburudenda ere badugu, eta eus-
kal taberna, bideo-berbaldi internazona-
listetarako... Euskaldun jatorrak interna-
zionalista izan behar du, elkartasuna
eskatzen baduzu emoten ere jakin behar-
ko. Josu Lariz Uruguain atxilotu eta
Espainiaratu gura izan zutenean hasi zen
dena. Beste euskal elkarteak lakotzat jot-
zen dugu gurea, baina gure lerroetan ez
dugu atzerakoirik ezta neoliberalik onart-
zen, ezkertiarrek gara, “behean eta ezke-
rrean gaude”. Bide horretatik egin deza-
kegu ekarpena. ◯

Betidanik euskaldun sentitu izan naiz

—**Noiz heldu zinen lehenengo bide-
rrez Euskal Herrira?**

—Heldu, Euskal Herrira etorri baino
lehenago heldu nintzen; beti izan duda-
lako harremana herri honen borrokagaz.
Argentinan 60. hamarkadan militante gi-
nenetik oso argi izan dugu badirela, geu-
reaz gainera, aldetasuna diegun borroka
bi: palestinar herriarena eta Euskal He-
rriarena. Lehen aldia erbesteratu nintze-
nean izan zen, 1978an; ordurako estuki
inguratuta gintuzten, eta nenbilen Mon-
toneros erakundeak kanpoan antolatu
gura zuen eraketa sortzeko irten ginene-
takoa izan nintzen. Orduan konturatu
nintzen ordura arte argazkietatik eta bizi-
penetatik bakarrik ezagutzen nuen bo-

rrokak geure borrokakaz antzekotasun
handiak dituela, tamainazko garrantzia
duela. Peronismoko militante izan nin-
tzen, baina neure burua beti bat etorri da
nazionalismo anticolonialistagaz, antin-
perialistagaz, antikapitalistagaz. Beraz,
nazio burujabetzaren alde borrokatzen
duen herri honen historia, herri inbaditu
hau, beti oso hurbil sentitu ditut. 1983an
itzuli nintzen Argentinara; zazpi urtera
Palestinarantz abiatu, nahiko haserre
nengoelako kide ohien menemismoaren
aldeko jarreragaz; menemismoak Ar-
gentina hondamendira eroango zuela iri-
tzi nion... Gerora, hona etorri nintzen bi-
zitzaera. 10 urte emon nituen, asko poz-
ten naiz, egoeraz jabetzeko eta bertako-

tzeko balio izan zitzaidalako. Alaba izan
nuen hemen, gero Fakun ere hona etorri
zen... Ene erroakaz barriro alkartzera
ekarri ninduten kontu andana. Sentipen
horrek gaur arte dirau, euskaldun sentit-
zen naizelako, nortasuna argentinar-
euskaldun artean erdibana daukat.
Niretzat diaspora ez da Euskal Etxeen
barruan lotzen den kontua, herri honen
borrokaren inguruan adierazten duzun
jarreran baino; nik intereseko dut musi-
ka, gogoko ditut paisaiak-eta... baina,
batez ere ardura zaidana da herri hau
burujabetzea, askatzea. Beraz, nire jar-
duera politikoko zati handia, Argentinan
banago ere, Euskal Herriaren alde lan
egiten emoten dut.




Nortasuna galdu barik

Albumean ikusi dugun legez, Martin Deuna jaiak ospatu barri dituzte Algortako Hezetasuna auzoan. Urtez urte, hirigunean dagoen auzoa izan arren, giro herrikoari eta baserritar nortasunari eutsi dio Hezetasunak. Hala ikus daiteke Sabino San Martin (Algorta, 1942) bertako auzokideak batu dituen argazkiotan: gizon-probak ikastola aurrean, idiak, txarribodak, erraldoiak jaietan e.a.

Argazkiak: **Sabino San Martinek batutakoak**







Berbalagun egitasmoa Uribe Kostan

Maita nazazu gutxiago eta goza nazazu gehiago: euskara bihotzean... eta ahoan!

Euskara erabiltzea dauka helburu Berbalagun egitasmoak, baina leku askotan, horretarako aukera gutxi dago egunerokoan. Euskaraz berba egiteko taldeak duela ia 15 urte sortu ziren gurean, eta arrakasta handia lortu dute.

Euskaraz ikasten hasi, gramatika lan-du eta testuak idatzi: eta, ondoren, zer? Ikasitakoa noiz eta non eroan daiteke praktikara? Eguneroko bizitza erdaratuta dagoen inguruan zaila da euskara klasetik kanpo erabiltzea. Beraz, euskaldunak zelan gara dezake bere hizkuntza? Arazoaz jabetuta, Berbalagun taldeak sortu ziren euskara elkarten ekimenez, duela zenbait urte. Helburu argia zeukaten: euskara ikastea eta bere erabilera sustatzea.

Horretarako, talde txikietan elkartu zituzten euskaldunak eta euskara ikasten ari zirenak, elkarren artean euskaraz egiteko. Kafea hartu, denbora pasa ibili, kontuak esan, paseatu zein gustuko gauzak egiteko batzen hasi ziren berbalagunak. Uribe Kostan 1997an abiatu zuen Berbalagun egitasmoa Bizarra Lepoan Euskara Elkartek. Orduan, talde txikietan elkartzen ziren; 60 lagun hasi ziren, 8 taldetan banatuta. Gaur egun, Egizu elkarteak kudeatzen du: 235 berbalagun dago aurten, 30 taldetan banatuta. Egizukoek dioten bezala, Berbalagun proiektuak, euskaldunei aukera ematen die euskaldunbarriei laguntzeko, herria euskalduntzeko, erabilera handitzeko edota euren euskarazko harreman sarea handitzeko. Euskara ikasten ari direnei, barriz, aukera ematen die euren maila hobetzeko

eta mintzapraktika egiteko, doan, eta euskaltegitik kanpoko giro euskalduna ezagutzeko. Zenbakiei erreparatuta, argi dago arrakasta lortu dutela. Getxoren ondotik Uribe Kostako gainontzeko herrietan ere hasi dira taldeak

Euskaldun zahar eta barriak elkartzen dira, elkarregaz berba egin eta euskararen erabilera sustatuz

sortzen. Erandion 2006an ekin zion lanari Berbots Erandion Euskaraz taldeak, arestian aipatutakoez gain, “herrian euskararen erabilera zabaltzeko asmoz”. Orduan 54 lagun elkartzen ziren hamar taldetan banatuta, eta, egun, 29 lagunek jarraitzen du, bost taldetan. Berbotsen



Algortako Portu Zaharrean Berba Eguna egin zeneko irudia

iritziz, Berbalagun proiektuari esker, Erandion lotune barria sortu da herritarren eta euskararen artean. Uribe Kostako Mankomunitatean ere bosgarren urtea dute berbalagunek; Zerbitzu Mankomunitateak eta Urtxintxa Eskolak kudeatzen dute. Orain arte, Berangon eta Sopelan egon dira taldeak,

baina aurten, Barrikan ere sortu dute bat. Orotara, Mankomunitatean 50 berbalagun dago, 7 taldetan banatuta: herrika antolatzen dituzte taldeak. Leioa da herririk barriena: iaz hasi ziren proiektuagaz Berbalamiñe euskara taldea eta bi euskaltegiak: 25 lagun eta 5 talde sortu ziren; aurten, barriz, 33 lagun

BERBALAGUNAK HERRIZ HERRI:

- ERANDIO: 5 talde, 24 berbalagun
- LEIOA: 5 talde, 33 berbalagun
- GETXO: 30 talde, 235 berbalagun
- SOPELA: 5 talde, 38 berbalagun
- BERANGO: talde 1, 5 berbalagun
- BARRIKA: talde 1, 5 berbalagun

hasi da, eta, gainera, guraso-lagun taldeak sortzekotan dabilta. Gehienetan, tabernan elkartu ohi dira berbalagunak, lasai solas egiteko, baina azken urteotan, zaletasunen araberako taldeak sortzen hasi dira: mendira joateko, padel zein paletan jolasteko, bizikletaz ibiltzeko e.a. Zaletasunak elkartu ditu, baina asmo nagusia da euskaraz hitz egitea. Uribe Kostako berbalagunek diotenez, euskara marko formal, akademiko eta burokrati-koetatik harago hedatzea da kontua: egunerokotasunean naturaltasunez erabili, bizitzarako hizkuntza bihurtu eta ez dadin izan ikasteko edo lan egiteko soilik. Azken batean, heburua komunikatzea bada, horretarako bitartekoa da hizkuntza; eta, zertarako hizkuntza bat ikasi, ondoren erabiliko ez bada? ○

Jon Peli Oleaga > Getxoko berbalaguna

“Kalean beldurrez ibiltzen gara, gure euskara nahikoa ona izango ote den, eta zelango erantzuna jasoko dugun”

—Getxon Berbalagun egitasmoa abiatu zenetik parte hartzen duzu, zergatik animatu zinen? —Bizarra Lepoan Euskara Taldean hasi nintzen eta eurek animatu ninduten. Aspaldiko euskaldun barria naiz: txikitán apurtxu bat banekien, aita Busturikoa nuen eta berak bazekielako, baina gitxi; izan ere, hemen euskara gitxi egiten zen sasoi hartan. Berbalagunakaz batu eta edozertaz berba egiten dugu

euskaraz. Orain sei bat lagun elkartzen gara talde honetan, astean hiru bider. —Zuenaz gain, talde asko dago, zergatik uste duzu hainbeste arrakasta izan duela proiektuak? —Ez dakit bada, agian jende asko dabilako euskara erabili ezinik, eta hau aukera bat da mihia apur bat dantzan jartzeko. —Eta baliagarria da? —Nire ustez bai; esate baterako, ni

lotsati samarra naiz, eta, horrelako taldeetan, errazagoa da hitz egitea. Gainera, kalean beti ibiltzen gara beldurrez: bate-tik, gure euskara nahikoa ona izango den ala ez, eta, bestetik, zelango erantzuna izango dugun. Beraz, holako taldeak hobeak dira hitz egiteko. —Zer alde dago lehengo berbalagunen eta gaurkoen artean? —Hasiera-hasieran beste era batean antolatzen ziren taldeak, orain baino

okerrago: taldeak beharrean, bikoteak ziren, eta, askotan, zertaz berba egin ez zeneukan. Talde handiagoa izanda, aukera gehiago dago euskaragaz interesatua dau-den pertsonak topatzeko. Bestalde, beti egon da taldean antolatzailearen bat, eta, gure kasuan, Javi Merchán izan zen: bera saiatu zen lehen berbalagunak elkartzen, eta oraintsu arte parte hartu du. —Antzeko zaletasun edo adinaren arabera antolatzen zarete? —Ez, hori benetan gaitza da, gitxi gare-lako, eta bakoitzak badauka bere zaletasuna. Guk futbolaz hitz egiten dugu. Baina kanpoan ezagutuko ez nituzkeen hitzak eza-gutu ditut. Beraz, euskaraz berba egin baino zertxobait gehiago egiten dugu.

—Eta, hemendik kanpora, lehen baino gehiago erabiltzen duzue euskara: kalean eta eguneroko bizitzan? —Ba, ez pentsa. Saiatzen naiz, baina ez da erraza: normalean, hemendik kanpo, ingurua lehengoa da. Ezagutzen ditugu berbalagunak, baina normalean ez ditugu kalean ikusten. Berbalagunok antolatzen ditugun ekintzetan jendea ezagutzen dugu, baina, gero, ez ditugu ikusten ekintza horietatik kanpora. Lehen baino aukera askoz gehiago ez daukagu kalean euskaraz egiteko, inguruak lehengoa iza-ten jarraitzen du. —Nor bere ahaleginaz gain, bestelakoak ere beharko lirateke euskara sustatzeko? —Bai, bai, hala da. ○





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GARRO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Maitasun komeriak

‘Nemekitepá’ **komedia erromantikoaren eszenak** grabatu dituzte Uribe Kostan



Aktore ezagunek parte hartzen dute

Maitasun kontuak eta komedia uztartuko ditu Aitor Mazo eta Patxo Telleria zuzendarien proiektu barriak. Euskara hutsez grabatutako ‘Nemekitepá’ film luzearen grabaketak azaroaren 7an hasi zituzten. Proiektu honetan ibilbide zabal eta emankorra duten hainbat aktore euskaldunek parte hartzen du, besteak beste: Gorka Otxoa (‘Pagafantas’), Barbara Goenaga (‘Sukalde kontuak’), Sara Cozar (Goenkale), Itziar Atienza (Vaya Semanita) edo Mikel Losada (‘Kutsidazu bidea, Ixabel’). Zuzendari lanak egiteaz gain, Aitor Mazok aktore lanak ere egingo ditu. Unax Ugalde basauritarrak ere kolabo-

razio berezia egingo du pelikulan.

Azaroaren 7an hasi eta grabaketek sei asteko iraupena izango dute. Bartzelonan eta Euskal Herriko hainbat txokotan eszenak grabatuko dituzte. Uribe Kosta, berbarako, eszenatoki legez erabili dute. Pelikularen lehenbiziko eszenak Erandioko Quiron ospitalean grabatu dituzte. Zortzi egun igaro

Euskara hutsezko filmaren zuzendariak Mazo eta Telleria dira

dituzte bertan grabaketak egiten. Halaber, Algortako Basagoiti kaleko etxebizitza baten barruan grabaketak egin dituzte. Gorkiz eta Armintza lotzen duen errepidea ere beste eszena batzuen eszenatokia izango da.

Filmak kontatzen duen istorioa ohiko komedia erromantikoena da. María izeneko emakume bat hiltzorian dago, eta Xabi bere laguna Bartzelonatik dator azken agurra ematera. Bidean, María beragaz maiteminduta dagoela ohartzen da Xabi, eta hil baino lehen poztasuna emateko asmoz, Maríari esaten dio bera ere beragaz maitemindu dela. Baina María azkenean ez da hiltzen, eta orduan hasten dira komeriak... ○

Info+: www.irekikom.com

Miguel Moyano > Riff musika-eskola

“Entseatzeko erabiltzeaz gain, hainbat musika taldek topagune legeaz erabiltzen du Riff”



Carmelo Aretzaga eta Miguel Moyano, Riff-en lokalean

Hamasei urte daroa Algortako Riff musika-eskolak Getxo eta inguruko musikarien topagune izaten. Sarrikobason lehenengo eta Villamonten ondoren, hamaika musikari igaro da Riff-etik musika tresna erostera, taldeagaz entseatzera edota eskolak jasotzera. Gainera, instalazioak barritu dituzte aurten. —Riff musika-eskola erreferentzia da eskualdean. Hamasei urteren ostean, zelan da gaur egungo egoera? —Ez da batere garai ona. Lehen urtez, musika-eskolan beherakada izugarria

izan dugu ikasle kopuruaren aldetik. Iaz 130 bat ikasle zeuden eskolan eta aurten momentuz 55 ikaslegaz gaude. Horregatik, saiatzen ari gara gauza barriak bilatzen. Agian ez da guztiz egokia nik esatea, baina beti egin dugu kalitatezko irakaskuntzaren alde. Adibidez, irakasleek rock-aren munduagaz harreman zuzena izan dute beti; eskolak emateaz gain taldeetan jotzen dute e.a. Eta eskola indibidualak eskaini ditugu. Baina noski, horrek kostu bat du. Horregatik, taldekako eskolak eskaintzea ere azter-

tzen ari gara. Ez dugu inoiz egin, baina behintzat prezio baxuagoan eskolak jasotzeko aukera izango du jendeak. Halan da be, mota honetako eskolen artean, uste dut gutxien kobratzen dutenen artean gaudela.

«Besteak beste, We are Standard eta Zentric igaro dira Riffetik»

—Horretaz gain hainbat talde batzen da Riffen entseatzeko...

—Taldea batzuk modu konstantean etortzen dira entseatzera. Baina entseatzeko erabiltzeaz gain, hainbat musika taldek topaleku bezala erabiltzen du Riff: taldekideak bilatzeko, kontzertu baterako entsegu puntualak egiteko... Helburu horregaz sortu genuen.

—Azken batean, krisiak krisi, musika-erakundearen zaleak bere horretan jarraitzen du...

—Bai noski, arazoa da xahutzeko dirua falta zaigula. Riff-etik Getxo eta inguruko makina bat talde igaro da, besteak beste, We are Standard, Zentric... Bere garaian beharrian bati erantzuna eman genion, ez zegoelako horrelako eskaintzarik. ○

Info+: www.riffmusic.com

diskoak

Ametsak pilatzen
Su ta Gar
Jotake ekolzipenak



Ametsaz eta desioz betetako disko barria kaleratu du Su ta Gar talde mitikoak. Estudioan grabatutako bederatzigarren lan honetan 11 kantu barri batu dituzte, eta liburuxkan letrak gaztelania, frantses eta ingelesra itzuli dituzte. Eibartarrek bira hasi eta besteak beste, kontzertua eskainiko dute Durangon abenduaren 23an.

Hitzetik
Hesian
Elkar



Nafarren laugarren lan honetan taldearen nortasuna bete-betean igartzen da. Doinu eta letra gazte, aurrerazale eta jostagarrien bidez, bizitza duintasunez bizitzea aldarrikatzen dute. Disko barrian eritmo dantzagarriak dira nagusi, eta haizeek eta kantariaren ahotsak nortasun berezia ematen diete abestiei.

La ciudad de las palmas...
Muy Fellini
Gor



Edu Ugartek (Half Foot Outside) eta Juan Maravik (Sök) sortutako taldearen bigarren diskoa da. Wilco, Neil Young, REM, edota Leonard Cohenen jarraitzaileentzat ez ezik, gustu zainduaz egindako musika zaleentzako aproposa izan daiteke. Rockzaleagoa da diskoa, baina ukitu barnerakoi eta erdi denborako kantuak ere badaude.

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

etorri
eta
ikusii!



ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Eskol Horria kalongez bat)
Tf. 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bítxitegia**

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41
Algorta

[literatura]

Zu goxo-goxo, ni bero...

Euskararen Egunaren tenperatura igotzeko
Ipuin berotikoak Plentzian

Plentziako Kultur Etxeak antolatu dituen Euskararen Eguna ospatzeko ekitaldietako bat da Ipuin Berotikoak. Hitzordua abenduaren 2rako ipini dute Goñi Portalean, arrastiko 07:15ean. Alabazaneko taldekide Begoña Gomez bilbotarrak jarriko die ahotsa ordu bete inguru iraungo duen ipuin-saioari. Erotismoaren gaia lantzea ez dateke erraza batzuetan, ostera Gomezek, esperientziatik, dienez ekitaldietara bertaratzeko den jendea “*jakin-min handiz hurbiltzen da, sarritan eskertu ere egiten dute gaiak misterio barik berba egitea...*”. Erotismoa, ahozkoasuna eta euskara bitarteko hiru istorio kontatuko dizkie Gomezek gozatzeko asmoz hurreratuko diren entzuleei, aurreratu digunez, urruneko garaietarik

“Ipuin klasikotik gaur egungo auzokoaren leihotiko istoriora”

hasi eta gaur egungoetara bitarteko kontuak batzen dituzte ipuinok. Ipuin klasiko bategaz hasi, *Txanogorritxu* aurrekoa ei dena, ostean bibragailu baten ingurukoak iragan, eta uda partean gaur egun auzokidearen leiho zabaletik barna ikusitakoak harilkatuz birbilduko du bilbotarrak saioa. Goxo, bero, lagunarteko



Begoña Gomez Alabazaneko kidea

tenperaturaren gora-beheretan, euskal giroan... eta umorez! Izan ere, lotsagatik edo, erotismoaren gaiak sor lezakeen barre-urduriaz gainera, Gomezen ikusizunean umoreak ere lekua duela adierazi digu Alabazaneko kideak, “*umorea ere oso erotikoa delako*” bere iritziz.

Horrenbestez, ipuin eta kontakizun erotikoakaz, beroakaz gozatzeko aukera egongo da Plentzian, eta gainera euskaraz! Utzi lotsa alde batera eta anima zaitetz konpainian onean Ipuin Berotikoak ekitaldiaz gozatzerara... *Maita, maita, maita nazazu asko, eta goza nazazu gehiago...* ○

Info+: www.alabazan.net

liburuak



Ipar haizearen kontra
Daniel Glattauer
Erein / Alberdania

Irati Elorrieta Agirrek itzuli du Daniel Glattauerren *Ipar haizearen kontra* lana. Batera saila loditzera etorri den nobelak mezu elektronik bidez elkar ezagutzen duten neska-mutilaren istorioa kontatzen du. Elkarriketa oinarriko lan dramatiko, komiko, samur, eroa...



Kartzelako poemak
Joseba Sarrionandia
Sus

1992an, 19 urte zituela, kartzelatik ihes egin eta gitarra lurretako idazleak kaleratutako lanaren edizio barritua plazaratu du Susak. Argitalpen honetan gaurkotutako grafian eskaintzen dira poema danak, eta gainera sei poema barri gehitu dizkiote.

[kirola]

Naiara Gomez Rodriguez > Getxo Kayaka

“Atzerrian honetaz bizi dira, profesionalak dira; guk astia dugunean entrenatzen dugu”



Gomezek sariak eskuratu ditu hainbat kategoriatan

Brontzezko domina lortu zuen urrian Naiara Gomez Getxo Kayakako kideak Singapurreko mundialean. Urdulizen bizi den getxoztarra K-2 kategorian lotu zen hirugarren, eta jada hurrengo urteko mundiala du jomugan. Zorionak!

—Brontzea irabazi barri duzue Singapurren; espero zenuten, edo urrea irabaztea espero zenuten?

—Hasiera batean ez. Lehiatzen ari den jendea kontuan hartuta, ez da batere erraza aurrera egitea. Baina egia esateko, aurtent nahiko ondo ibili gara; Europako txapelketan brontzea eskuratu genuen, eta Getxo Kayakagaz Espainiako txapelketa irabazi genuen. Maria Pérezegaz bost urte daroat txapelketetan parte hartzen, eta aurtent asko entrenatu dugu. Emaizta oso ona izan da.

—Zein izango da hurrengo erronka?

—Momentuz atsedent hartuko dugu. Hurrengo urtean Erroman izango da mundiala, irailean, eta gauzak ondo badoaz barriro parte hartzeko asmoa dugu. Kontuan hartu behar dugu, dena den,

beste herrialde batzuetan honetaz bizi direla, profesionalak baitira. Guk, ordea, astia dugunean entrenatzen dugu.

—Beste taldeakaz alderatuta, zelan ikusten duzu Getxo Kayakan maila?

—Orain dela bost urte taldea barriro sortzea erabaki gendun. Uste dugu Getxok harrobia izan dezakeela kayakan, eta gure asmoa hori izan da: beheko kategorietan

«Haur eta federatu kategoriei lehentasuna eman gura diegu»

taldeak sortu, etorkizunean goiko kategorietan ere jendea izan dezagun. Haur eta federatu kategoriei lehentasuna eman gura diegu.

—Gero eta gehiago dira gurean kayak egitera animatzen direnak?

—Gazte nahikotxo dago taldean, baina ea gehiago lotzen diren! Dena den, azpiegiturretan arazo handia dugu: higie eta espazio aldetik oso eskasak dira. Uste dut emaitza ona lortu dugula Udalaren aldetik azpiegitura duinagoak lortzeko. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Koska irratiko lagunak > Agur, Koska!

“Txikitasunean gauza handiak egin ditu Koskak, eta erreferente bilakatu da”

Hamaika urte beteko du Koska irratia abenduan, baina agur esatera doa urtemuga honetan. Agur, bai, bere ibilbidea amaituko du eta egitasmo barri bati bide emango dio; baina ez du lan makala egin urte hauetan guztietan.

—Urteurrena ospatu beharrean, agur esango du Koskak laster, zergatik?
—Hamar urteotako lana pikutara joan zitekeen dirua dela-eta. Diru sarrerarik handiena Algortako Portu Zaharreko txosna zen, eta duela urte bi, ez ziguten jartzen utzi; ondorioz, diru zama pilatu dugu. Diru falta handia dela-eta, aurrera ezin egin egon gara eta, irratia alegala izateak ere, arazoak dakartza. Hausnarketa egin genuen, eta planteatu: Koska desagertuko da ala diruak mugatuko ez duen proiektu barria eratuko dugu.
—**Zergatik sortu zen Koska?**
—Euskarak lehentasuna izango zuen irratia sortu gura genuen, eskualde mailakoa. Gainera, ahotsik bakoien ahotsa izan gura zuen, librea, ezkertiarra, euskaltzalea eta Euskal Herrikoa: medio handietan lantzen ez ziren gaiak jorratu gura zituen.
—Jende askok parte hartu du Koskan. Zer ekarpen egin dio Uribe Kostari?
—Polita litzateke zentsoa egitea, asko izan baitira. Pertsona horientzat erreferente txikia ere bihurtu da Koska; izan ere, bestelako lekuetan ahotsik ez zeukatenei adierazteko aukera eman die. Bere txikitasunean gauza handiak egin ditu: kubritu ditu azken Korrikak zuzenean, Gaztetxe eta Gazte Egunak e.a. Gainera, hauteskunde batzuetan alderdien arteko eztabaidak ere egin ditugu, eta irratia ale-



Koska irratiko hainbat lagun

gala izanda, legeak egiten dituzten pertsonak modu naturalean pasatu dira Koskatik. Beraz, azkenean erreferentzia bilakatu da herriarentzat. Arazo teknikoak direla-eta, askotan ez gara iritsi, ez gura genukeen leku guztietara, ez kalitate onagaz; baina, azken urtean, interneteko emisioagaz, jende gehiagorengana

“Ez dugu Koska erabarrituko; euskarazko proiektu barria sustatuko dugu eskualdeko euskalgintzako eragileakaz batera”

heldu gara, baita eskualdetik harago ere.
—**Azken urteko hausnarketa aipatu duzu hasieran, zein da ondorioa?**
—Argi geneukan Koskak ezin zuela jarraitu azken urte bietan bezala: lan nahiko egiten zen ekoizpen mailan, baina jarraitasunik ez bazeukaten ez ginen arduratzen. Bestalde, Eusko Jaur-

lartzak irratientzako lizentzia barriak aterako ditu datorren urtean, eta horien bila joatea erabaki genuen. Proiektu barri bat eratzeke aukera ematen zuelako, baita eremu radio-elektrikoa askoz gehiago mugatuko delako. Irrati guztiz euskalduna sortzeko apustua egingo dugu, eskualde osorako; herritarra izan-

go da, pertsona profesional eta ez profesionalek parte hartuko dute eta egungo legalitatean sartuko da. Ez dugu Koska erabarrituko; euskarazko proiektu barria sustatuko dugu eskualdeko euskalgintzako eragileakaz batera, eta Koskaren baliabide guztiak haren zerbitzura ipiniko ditugu. ○

Fredi Paia

Antsoneko Indertsu

Juan Bautista Artza Iraola Urdu-lizeko Antsone aldea-etxen jaio zan 1812ko maietzan hogeta bin. Morrosko derdixedu ixen ei zen, inder itzela eukan eta 1853ti 1857ra bitarten hil bazan bere (zekor bategaz okitako agarradak erniata, lekukon esanen), ondino Antsonekon akordu sano bizi-rik dau Urdulize ingeruko edadekon arten.

Amak ume bardingo zala igerri ei otsen neurribako inderra eukala. Behin, Urdu-lizeti Mungiko plazara lagundu otsen Antsoneko indertsuk bere amari. Ama ben-dejere zan, eta saltzeko erozan jenerokaz batera zaku bet koxi ei iaun egun hatan. Amari zaku astuna iten dakon eta lantzen binen deskantsa ber ixeten iaun. Baie etxera bueltan, Bautista mutikotxuk lepora altxa ei iaun zaku eta Antsonera ailega arten ez ei iaun deskantsune bakar bat bere in. Sano harritute lotu ei zan ama semen inderraz.

Denporaz asko handitu zan seinetxu ha, eta bere birlobek esan oskun modun etxera bere alboz sartzen ei zan, ezin kaidu handin handiz. Ordun hasi zien hil de ahun urte beluau bere entzun leikezan pasadizok.

Esaterako, atxineko gurpidetan, gurdi bi kurtze ezkeron ez ei zan eoten lekurik biek aldi beren pasateko. Holango egoera baten topa zan Antsoneko indertsu egun betez. Ixen bere, Antzegu aldea-etxen paren gurdi bet agertu dakon parez pare estratzan. Ordun, Antsonekok ganaduk buzterriti atara iauzen eta besokaz gurdi mune ganera altxa iaun. Hori iteko inder negargarri ber dau persona betek, eta arin zabaldu ei zan Juan Bautistan inderran barri.

Udebarri nahi uden aldea-etxen iten iaun behar, baie negun itsosora urteten iaun betzuten, garestikotan Portalteko portun oten zan sirkero lez. Bere beson inderra nahiko ixeten ei zan barku lurrera soka bidez parajetuteko. Normalen lagun askoren ekine ber ixeten zanen hori behar hori iteko.

Gerrate karliste ixen zan sasoi itsoson



“Antsone

emon iaun Antsonekok. Portaltera barku koixten joiala soldadu karlistek urten ei otsen bidera eurakaz gerrara jon ber iaule esanez. Golpeka domina eta armak kendu

«Antsonekok ganaduk buzterriti atara iauzen eta besokaz gurdi mune ganera altxa iaun»

osten barkure alde in iaun Juan Bautistek. Handi gitxire boxeo burruke bat prepara ei otsen barkuko kapitene sopoloztarrak Antsonekori. Baltz baten kontra in ber ixen iaun agarradan. Baltzak origo igurdi ei iaun bere gorputz duztin eta Antsoneko ezin koxirik ibil ei zan burruken hasikeran. Tarten, baltzak inderraz iten otsen ukulke urdulizterrari. Holango beten min hartun ei iaun Juan Bautistak, eta holan itaundu otsen kapitena-

ri hil nengi? Kapitenak baietz erantzun otsen eta erkorok sahietsetati sartunde hil iaun Antsonekok baltza.

Urdulizera buelta zanerako sano zabal-dute egoan Antsoneko indertsun gerizpe. Behin, solon exabarrak iten ebilela giputz bi agertu ei dakoan. Giputzek ez euden ezetuten eta ia Antsoneko indertsu non bizi zan itaundu eutseen. Ixen bere, posturen bat in gure ei euden urdulizterraren kontra. Juan Bautistak exe beso bikez altxa eta bere etxera adi imini osten erantzun otsen: han bizi de. Giputzek arin in euden alde, pentsaurik, morroi hak holango inderra baeukan Antsonekon kontra ez eudela zereginik okingo.

Horretarango hamaka pasadizok sortu euden Antsoneko indertsuren fame. Eta geur, bera hil zaneti ahun urte baizen gihau igero badirez bere, bizirik seguten dau agoz ago transmitidu dan bere akordu. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzen has zaitezzen.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Calidad Turística

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com

La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07

berezi

Hanburesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

txakoli mota gane Tx.
txakolina

leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

UNAI TABERNA
JATETXEA

C/ Alangobarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61

Cafeteria Cosmopolita

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80

JAN-TOKI ORMAIZTEAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO

GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Asador Cervecera BERANGO

Oilasko erretek, indabak, txuletoia, arraina txingarretan
Menu bereziak enkarnez - Gabonetako Menu bereziak
Pollo asado, txuletoes, alubias, pescados a la brasa. Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad
EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34

Berango



Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Ohikoa, berezi bihurtuz

Txibi arrautzaztatua tipula eta piperrakaz



Txibi-pintxo txakolin batez lagun dezakezu

Nahiko ohikoa da txibiak Euskal Herriko tabernetako barretan ikustea; pintxotan baino, txibi-razioak eskaintzen dira sarriago. Portu Zaharra tabernan, zelan ez, txibiak ere dasta daitezke, eta gainera, modu nahiko berezian prestatzen dituzte. Arrakasta nahikotxo dutelako, agian, beti topatuko ditugu tabernaren pintxo-barra luzean.

Lehenik eta behin, txibia arrautz-irinetan sartuko dugu. Modu honetan, eta frijitu ostean, ukitu berezia emango diogu txibiari. Molusku honen zaporea-gaz hainbat jakik konbinatzen dute ondo. Portu Zaharra tabernaren kasuan, pikillo piperra eta piper berdea erabiltzen dute (aldez aurretik frijitu beharko dugu, noski).

Beraz, aurreko hiru osagaiak batu (arrautz-irinetan sartutako txibia, piper berdea eta piper gorria) eta ogi xerra baten gainean jarriko ditugu (piperrak azpian). Pintxoari azken ukitua emateko, tipula potxatua gehituko diogu txibiari. Aurreko errezeta batean komentatzen gendun legez, gatz apur bat bota diezaiogegu tipulari. Eta kitto, zotz batez zulatu ostean, prest izango dugu gure mokadutxo!

Eta gainontzeko itsas-jakietan legez, pintxo pote batez lagundu gura badugu, aukerarik onena zuri bat edo txakolin trago bat eskatzea izango dugu. On egin! o

Osagaiak: txibi bat, irina, arrautza, pikillo piperra, piper berdea, tipula, ogi-xerra bat, olio eta gatz.

LAIK Taberna

BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93




prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Maria Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixxareriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA



JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

[horoskopoa]



URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Bakarriketan hasi zara azken aldian, zoramena ote? Burua ireki eta kaso egin beharko zenieke aldamenekoei, tabakoa eta alkoholik bako garagardoa eskatzen badizute ere.



OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Hotza iritsi dela azkenean eta pozarren zaude, baina dardaraka uneoro. Ez zaitez horren zekena izan, bota egizu duela 20 urteko berokia eta erosi barria, ala hotzak hilko zara.



ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Zenbat diru gorde duzu aurtten Durangon xahutzeko? Tentuz ibili eta neurriak hartu, egoera ikusita nork daki abenduko aparteko ordainsaria non lotuko den...



AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Hauteskundeak igaro eta lasaitu zara, burua beteta ibili duzu-eta azken astecotan. A zer lasaitasuna megafoniatik doinu itsaskor horiek kenduta! Hurrengoan gehiago...



HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Euskara gora eta behera, ahoan darabilzu egun osoan, Euskararen eguna dela-eta. Pena urteko gainontzeko egunetan horrela ez izatea! Animatu eta erabili!



EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Ai eguzki, zein iheskor zabiltzan azken aldian! Zure falta sumatzen dugu denok, batez ere arrastia heldu eta alde egiten duzunean. Zergatik ez zara denbora gehiago urteten?



GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Iazko liburu denak apaletik mugitu ez eta aurtten Durangoko Azokan ezer ez erostea erabaki duzu: zu bai erradikala! Agenda, poster eta musika diskoren bat behintzat...



LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Berba eta berba egiten duzu, baina ezer gutxi esan. Zure buruari entzutea gustuko duzu, nonbait. Gauza berberak errepikatzen dituzu behin eta barriro: Lastoa!



IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Langabezia, lehen egin ezin zenituenak amaitzeko balia dezakezu, zergatik ez duzu ipintzen sofa atzean daukazuin koadro hori? Zatarra da, baina beste batentzako dirurik ez daukazu.



META

(Irailak 17 urriak 16)
Ikasketak estresatuta? Lasai egon, hementxe daukazu erremediorik onena: hotzak on egingo dizu gaur, eta bihar biharkoak...



HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
Baina zer ematen diezu? Guztiak atzetik daukazu, eta guztiak ezin lotu. Hau da arazoa, zein aukeratu? Dena ezin eduki daiteke, baina saia zaitez negoziatzen, ea konformatzen diren.



NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
Azkenean lortuko duzu pisukide petrala exetik botatzea, zorionak! Ai ene! Baina orain diru nahikorik ez daukazu alokairua ordaintzeko. Eskia egiezu gurasoei, ea zer esaten dizuten.

Kopiak SALGAI

UK aldizkariaren bulegoan



Martikoena 16,
2. solairua
Algorta (Getxo)

Alangoko
Osasun Zentroaren alboan

Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena 

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....

Kalea/zenb..... Herria.....

e-mail.....


Telefonia..... Mugikorra.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro
☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□



UK Uribe Kostako Aldizkaria 171. posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37





Irudi Gurutzatuak

Eskolan erabiltzen ditugun tresna hauen izenak lau-kietan idatzi ondoren, ikasle eta irakasleok noizean behin horren beharrezko dugun zerbaiten izena irakurriko duzue gelaxka ilunetan.



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein film-dokumental ikusi ahal izan zen azaroaren 29an Algortako Kasinoan?

> Aurrekoaren erantzuna: Emakumeen aurkako indarkeriaren...
> Irabazlea: **Nerea Maitakan***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Abenduaren 4tik 8ra non izango da Euskal Liburu eta Disko Azoka?

- **Getxon**
- **Berangon**
- **Durangon**

> Aurrekoaren erantzuna: **Negua**
> Irabazlea: **Maria Barrena***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA **argia**
astekariaren biru hilabeteko harpidetza doan



SARIA



“zinema etxean haurrentzako DVD filmen laugarren bilduma”

Bidalai erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu

Bittor Egurrola
ITXAS-GANEREN IBILALDI NEURTUA, 1970

Algortako Itxas-Gane 1950-60 hamarkadan sortu zen. Gaur egun Aldai Patronatua eraikin berria dagoen toki berean zegoen etxe handi-eder bat eta Felisa Aldai jabeak oparitu egin zuen gazteriak erabiltzeko. Hortxe zeukan egoitza Itxas-Ganek (bai mendi taldeak *Flashback* Bizarra Lepoan aldizkaria 18. zenbakia, bai dantza taldeak *Flashback* UK 28)eta beste talde batzuek("Acción Católica, Scout,...). Urtero "Ibilaldi Neurtua" antolatzen zuen eta hori da argazki honetako zera: urte horretakoaren sari banaketa San Nikolas plazan. Agertzen den kioskoa ez da oraintsu desagertu dena baizik eta arkuetara atxikita zegoena.

Atzean: "Txus" Arzubiaga (Itxas-Gane mendi taldeko delegatua), Eugenio Gandiaga (bizpahiru urtetan Itxas-Ganeko lehendakaria), Jose Miguel Gandiaga (abadea, scout taldeko consiliario "a), Juan Antonio Aio "Basilio" (Itxas-Gane dantza taldeko arduraduna urte batzutan).

Aurrean, sarietako bat jasotzen: Ane Miren Uribetxebarria (Itxas-Gane dantza taldekoa), Belen Ruiz.



"TXUS" ARZUBIAGAK UTZITAKO ARGAZKIA

IRATXE IBARRA > bertsolaria

“Egunerokoan ezagutzen dudan jendea miresten dut gehiago”

Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini egizu zeure burua berba bitan.
Baikorra, apur bat burugogorra agian.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Beharbada, oraindik egin gabe dagoen pelikula historiko batean.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?
Bertsoaren edo hizkuntzaren mundutik aparte, kirola gustatzen zait orokorrean, eta batez ere, pilota. Horretan ere gustura jardungo nuke.

Aitor dezakezun bizio bat.
Txokolatea (jatekoa, e!).

Musika talderik gogokoena?
Lehengetan Hertzainak, oraingoetan Doctor Deseo.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke? Zergatik?
Zaldia. Atsegin ditut, eleganteak iruditzen zaizkit.

Parrandarik politenak non?
Lekeitioko antzarretan. Beste jai batzuetan ez bezala, Lekeition giroak kontagiatu egiten nau.

Miresten duzun historiako pertsonaiaren bat?
Ez naiz pertsonaiak miretsi zalea. Askotan mitifikatu egiten ditugu, eta batek daki zelakoak izango ziren benetan, Egunerokoan ezagutzen dudan jendea miresten dut gehiago.

Zein da biharko egunkarian irakurri gura zenukeen barria?
Orain dela gutxi irakurri dugun berri horri erantzuten dion beste bat.

Bertso-saio bat egiteko lekurik onena?
Bazkaloste edo afaloste bat, tabernaren batean.

Inoiz jarri dizuten gairik arraroena bertso-saio batean.
Gaia osorik esan barik eman ziguten behin Mendiluze eta bioi, eta gai-jartzailea ez zen ohartu zati bat esatea ahaztu zitzaiola gu kantuan hasi ginen arte. Atera kontuak zelako ofizioa egingo genuen! ○

LABURREAN— Emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunaren harira, bertso-saioa antolatu zuten Berangon aza-roaren 19an. Bertan, Onintza Enbeita eta Uxue Alberdigaz batera, Iratxe Ibarra (Markina-Xemein, 1974) ibili zen bertsotan. Euskara teknikaria lanbidez, 12 urtegaz hasi zen bertsotan Jon Lopategigaz, eta 15 urtegaz egin zuen lehen plaza. Bizkaiko txapelketan finalista izan da hirutan, eta egun Markina-Xemeingo bertso-eskolako kide da. Horretaz gainera, ‘Emetik’ ber-tso-kabaret barritzailean parte hartu zuen Enbeita eta Pereagaz batera.

Javier Fuertes > Troka Abentura

“Q ziurtagiriak etenbako hobekuntzarako mekanismoa sortzeko aukera eman digu”

Euskadin honezkero 273 establezimenduk jaso du turismo arloko enpresen zerbitzua, zertifikatzen duen Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria, tartean Gorlizko Troka Abentura aisialdi eta kirol enpresak.
—Zeintzuk izan ziren sistema honen alde apustua egiteko arrazoiak?
—Troka Abentura sortu genuenetik, gure helburua kalitatea enpresaren lan egiteko eraren oinarri bihurtzea izan da, enpresaren arlo guztietara zabalduz. Hau da, gure indar guztiak jarri ditugu beti bezeroei zerbitzurik onena emateko, langileak enpresan parte-hartzaile aktibo sentitzeko e.a.
—Zein abantaila ekarri dizue Q ziurtagiria edukitzeak?

—Lan-sistema honekin pertsona guztiek enpresaren protagonista izateko aukera dute. Gainera, ondorio oso garrantzitsuak izan ditu gainerako lan arloetan, batez ere bezeroen poztasunean. Lagungarria izan da enpre-saren kudeaketan ere, lan guztiak oso ondo zehaztuta baitaude. Eta etenbako hobekun-tzarako mekanismo bat sortzeko aukera eman digu, jasotako ekarpenei esker.
—Ezarpenaren ondorioz nolako hobe-kuntzak izan dituzue, barne funtziona-menduan, kudeaketan eta azpiegituretan?
—Enpresaren funtzionamendua hobetu egin da, prozedura berriei esker. Langileek badakite zehazki zeintzuk diren euren egin-beharrak. Lan-taldeak sortu dira, eta langile-en poztasuna handitu denez, horrek eragina du gero bezeroengan. Materialen kontrola ere handitu da, bai berriskupenean baita mantentze arloan ere.
—Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean eragina izan duten hobekuntzak?
—Kalitate sistema ezartzeak bezeroak gustu-

rago egotea ekarri du. Euren iritzia jakiteko sistema barri bat sortu da, eta horrek edozein akats edo ez-ohiko egoera hautemateko aukera ematen digu, baita beharrezkoak diren mekanismoak martxan jartzeko ere.
—Zer esango zenieke turismo arloko profesionali Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpenerako anima daitezen?
—Sistema hau ezarrita enpresaren eragike-ten gaineko kontrola handiagoa eta eragin-korragoa izango da. Asko errazten dira enpresaren barruko eta kanpoko lanak.
—Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen du?
—Eginkizun eskuordetzearen bidez, enpre-sak lehiakortasuna irabazi du merkatuan, eta lehiakortasun horrek hazteko aukera eman digu.

“Enpresak lehiakortasuna irabazi du merkatuan, hazteko aukera emanez”

—Kalitate Turistikoaren Q-aren kudea-keta prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke?
—Gerentziaren ikuspegitik, abantailarik handiena enpresan eskuordetze-sistema bat ezartzeko aukera izan da.
—Kalitatearen kultura zure erakunde- bultzatzeko nolako aldaketak sartu ditu-zu edo sartzeko asmoa duzu?
—Aldaketarik garrantzitsuena langileei enpresaren jardunean protagonismo handia-go ematea izan da; lanarekiko konpromisoa hobetu da, eta ondorioz, enpresaren kudea-keta integrala ere hobetu da. ○



Javier Fuertes, Troka Abenturaren egoitzan

Eusko Jaurilaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

• Jardunbide egokirako programak: helburua enpresarioen “profesionalizazioa” eta jomuga-konzientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude.

• Kalitate Turistikoaren Q-a programa: bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 273 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.



•EFQM Bikaintasun eredua: erakundeei kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredua honetan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

Jar egizu kalitate turistikoaren Q ziurtagiria zure establezimenduan!

94 607 75 86
94 404 74 70

www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net





GETXO^{arte}¹¹

Abenduaren 2tik 4 arte

Del 2 al 4 de diciembre

Areetako Geltokia plazako karpan

Carpa de la plaza Estación de Las Arenas

Ordutegia / Horario:

11:00 - 14:00, 17:00 - 21:30

Sarrera / Entrada: 2 €